

Psikologia Irautzailea

TRATATUA



Samuel Aun Weor



Pegaso Bilduma

PSIKOLOGIA IRAULTZAILEA

TRATATUA



Samael Aun Weor

Psikologia Iraultzailearen tratatua

Samael Aun Weor

(Gabonetako mezua 1975-1976)

Jatorrizko izenburua: *Tratado de Psicología Revolucionaria*

Psikologia Iraultzailea 5.2 euskera.pdf

Pegaso bilduma: 2020ko apirila

EGILE-ESKUBIDEEI UKO EGIN ZIEN:

...“Anai-arreba maiteok, gaur-gaurkoz eta beti, uko egin diet, egiten diet, eta egingo diet egile-eskubideei. Liburu hauek merke saltzea da nahi dudan bakarra, pobreek eskura izatea, sufritu eta negar egiten duten guztien eskura egotea! Zorigaitzokoena den hiritarrak ere, poltsan dituen txanpon bakanekin liburu hau eskuratu ahal izatea! Horixe da guztia!”

Samael Aun Weor
Mexikoko Guadalajaran egindako kongresuan esana
1976/10/29

ITZULTZAILE TALDEA:

Itzultzaileek uko egiten diete egile eskubideei.

Liburu hau dohainik banatzekoa da

www.gnosistr.com

Itzultzaileen oharra

Liburu bakoitzaren itzulpenak berezitasunak ditu. Kasu honetan, liburu honen itzulpen-lana oso berezia da; izan ere, filosofia gnostikoak, esoterismo serio eta sakonak, tradizioaren sustrai sakonetan oinarrituta, hiztegi zehatza aurkezten digu, eta, askotan, hizkera arruntean erabili ohi diren hitzak bestelako zentzu batean erabiltzen dira.

Horregatik, jarraian, kontzeptu zehatzei buruzko ohar hauek aurkeztuko ditugu.

Gaztelaniaz zentzu esoteriko berezia duten hitzak

Izaki, Izate, norbere burua:

- **Izaki:** “Ser” maiuskulaz idatzita: Izaki goren, Jainkoa.
- **Izate:** “Sí” maiuskulaz idatzita. Recuerdo de Sí: norbere Izatea gogoan izan.
- **Norbere burua,** norbere baitan: “Mí mismo, mí”.

Ulertzea (comprender) eta **entenditzea** (entender):

- **Ulertzea**: ulermen kontzientea, sakona.
- **Entenditzea**: azalekoa, ez kontzientea.

Bihotz deia (anhelo) eta **nahia** (deseo):

- **Bihotz deia**, bihotzez, kontzientea.
- **Nahia**: desira, irrika, egoarena.

Existentzia eta bizitza: bizitza bat daukagu, hasiera eta amaierarik gabekoa, amaigabea, baina existentzia asko bizi ditugu. Existentzia bakoitza jaiotzearekin batera hasten da, hil arte, ondoren beste existentzia bat hasteko.

Esentzia: barne-txinparta, izatasuna, arima.

Beste hitz batzuen adiera zehatza

Gogamena eta adimena:

- **Gogamen**: mente
- **Adimen**: intelecto.

Errepikapena eta itzulera:

- **Errepikapen**: Recurrencia
- **Itzulera**: Retorno

Edizio honetarako Sarrera

Antzinatek hasita, psikologiak, bizitzaren eszenatoki ezberdinetan, bere papera antzestu izan du, zentzu handiz, Filosofiaren jantziaz mozturirik.

Ganges ibaiaren ertzean, Veden India Sakratuan, aspaldi-aspaldiko gau beldurgarriaz geroztik, badira Yoga motak, funtsean, goi mailako Psikologia Esperimental hutsa direnak.

Zazpi Yogak metodo, prozedura eta filosofia-sistema gisa deskribatu izan dira.

Arabiar munduan, Sufien Ikasbide Sakratuak, neurri batean metafisikoak, eta beste neurri batean erlijiosoak direnak, erabat psikologia arlokoak dira zinez.

Hainbeste gerraren ondorioz, erlijio, politika, arraza-urreiritzi eta abarren ondorioz hezur-muinetaraino usteldua dagoen Europa zaharrea, joan den mendearen bukaera arte, Psikologia Filosofiaren jantziaz mozturitu zen, nabarmendu gabe egon ahal izateko.

Filosofiaren zatiketa eta azpi-zatiketa guztiak kontuan izanda ere, hala nola Logika, Ezagutzaren Teoria, Etika, Estetika, eta abar; inolako zalantzarik gabe, berez, norberaren baitako hausnarketa nabaria da, izakiaren eza-

gutza mistikoa, esna dagoen Kontzientziaren ezagutza bidezko funtzionalismoa.

Filosofia eskola askoren akatsa honetan datza, Psikologia Filosofia baino gutxiagotzat hartu izana, giza izaeraren alde baxu eta arruntenekin erlazonaturiko zer-bait izango balitz bezala.

Erljioen arteko konparazio-ikerketak batek ondorio logiko honetara garamatza: Psikologiaren Zientziak beti eduki izan du oso harreman estua Erljio-Printzipio guztiekin.

Erljioen arteko edozein konparazio-ikerketak zera egiaztatzen digu: hainbat herrialdetako eta garai ezberdinetako literatura sakratu ortodoxoenean, badira Psikologia Zientziaren altxor zoragarriak.

Gnostizismo alorreko ikerketa sakonek kristautasunaren hasieratik datozen, eta “Philokalia” izenaren bitartez ezagutzen den zenbait autore gnostikoren bilduma zoragarria aurkitzeko bide ematen digute; aipaturiko bilduma hau, oraindik orain, erabili egiten da Ekialdeko Elizan, batez ere monjeen formakuntzarako. Inolako zalantzarik gabe, eta iruzurrik egiteko inolako beldurrik gabe, hauxe baieztatu genezake irmotasun osoz: “Philokalia”, nagusiki, Psikologia Esperimentala da.

Samael Aun Weor

Oinarrizko Hezkuntza / 31. Kapituluua: Psikologia Iraultzailea



Pegaso Bilduma

AURKIBIDEA

| | |
|------------------------------------|----|
| 1.- Izakiaren Maila | 13 |
| 2.- Eskailera Zoragarria | 19 |
| 3.- Errebeldia Psikologikoa | 23 |
| 4.- Esentzia | 27 |
| 5.- Norbere burua salatzea | 31 |
| 6.- Bizitza | 35 |
| 7.- Barne-egoera | 39 |
| 8.- Okerreko egoerak | 43 |
| 9.- Gertaera pertsonalak | 47 |
| 10.- Ni ezberdinak | 51 |
| 11.- Ego maitea | 55 |
| 12.- Erabateko aldaketa | 59 |
| 13.- Behatzailea eta behatua | 63 |
| 14.- Pentsamendu negatiboak | 67 |
| 15.- Banakotasuna | 73 |
| 16.- Bizitzaren liburua | 79 |

| | |
|----------------------------------|-----|
| 17.- Izaera mekanikoa | 83 |
| 18.- Ogi super-substantziala | 87 |
| 19.- Etxeko nagusi ona | 91 |
| 20.- Bi munduak | 95 |
| 21.- Norbere buruaren behaketa | 99 |
| 22.- Berriketa | 103 |
| 23.- Harremanen mundua | 107 |
| 24.- Kanta psikologikoa | 111 |
| 25.- Itzulera eta errepikapena | 119 |
| 26.- Haurren auto-kontzientzia | 125 |
| 27.- Zergalaria eta fariseua | 129 |
| 28.- Borondatea | 137 |
| 29.- Burua moztea | 145 |
| 30.- Grabitate-zentro iraunkorra | 157 |
| 31.- Lan esoteriko gnostikoa | 167 |
| 32.- Otoitza lanean | 171 |

Izakiaren¹ Maila

Nortzuk gara? Nondik gatoz? Norantz goaz? Zertarako bizi gara? Zergatik bizi gara?

“Animalia intelektual” koitaduak, modu okerrean gizakia deritzonak, ez jakitez gain, ez dakienik ere ez daki; hori ukazina da.

Aurkitzen garen egoera benetan da zaila eta arraroa, hauxe da denetan okerrera. Geure tragedia guztien sekretua zein den ez dakigu, eta, hala ere, dena dakigula sinetsita gaude.

Eraman dezagun “Ugaztun arrazional” bat, bizitzan eragin handiko pertsona izateaz harrotzen den horietako bat, Saharako basamortuaren erdira, utz dezagun edozein oasitatik urrun, eta espazio-ontzi batetik begira dezagun gertatzen den guztia.

Gertaerek beren kabuz hitz egingo dute; Humanoide intelektuala, nahiz eta indartsua izateaz harrotu, eta oso gizon handia dela sinetsi, funtsean ikaragarri ahula da.

¹ Izaki: Izaki goren, Jainkoa,

Animalia arrazionala seko lerdoa da; beti onena pentsatzen du bere buruaz; uste du zoragarri mol-
da daitekeela eskolaurre, gizabide eskuliburu, lehen
hezkuntza, bigarren hezkuntza, batxilergo, unibertsita-
te, aitaren izen on, eta abarren bitartez.

Zoritxarrez, hainbeste ikasketa, jokamolde on, titulu
eta diruren atzetik, ondo dakigu urdaileko min huts
batek nahigabetzen gaituela, eta funtsean, zoritxarreko
eta miserable izaten jarraitzen dugula.

Antzinako basati berberak garela, eta hobetu orde-
z, okerragoak bilakatu garela jabetzeko, nahikoa da His-
toria Unibertsala irakurtzea.

XX. mende hau, eta bere ikusgarritasun guztia, geure
buruari begiratzeko erabili behar dugun ispilua da:
gerrak, prostituzioa, sodomia orokorra, degenerazio se-
xuala, drogak, alkohola, neurritz kanpoko krudelkeria,
sekulako gaiztakeria, munstrokeria, eta abar; beraz, ez
dago goragoko garapen maila batera iritsi izanaz ha-
rrotzeko arrazoi sendorik.

Denborak aurrerapena dakarrela pentsatzea zentzu-
gabea da. Tamalez, “letradun ezjakinek”, eboluzioaren
dogman preso jarraitzen dute.

“Historia Beltzaren” orrialde beltz guztietan, beti kru-
delkeria beldurgarri berberak, anbizioak, gerrak, eta
abar aurkitzen ditugu.

Hala ere, gure garaikide “super zibilizatuak”, oraindik, gerra kontuak huskeria direla dute buruan sartuta. Hitzetik hortzera goraiatzan duten “zibilizazio modernoarekin” zerikusirik ez duen istripu iragankorra dela uste dute.

Egia esan, pertsona bakoitzaren izateko era da garrantzia duena; lagun batzuk mozkorak izango dira, beste batzuk abstemioak, hango haiek zintzoak, eta beste hauek lotsagabeak; denetik dago bizitzan.

Gizabanako guztien batura da masa; gizabanakoa zer den, horixe bera da masa, gobernu, etab.

Masa, gizabanakoaren luzapena besterik ez da; gizabanakoa, pertsona bakoitza eraldatzen ez bada, masaren eta herrien eraldaketa ez da posible izango.

Gizarte-maila desberdinak daudenik inork ezin du ukatu; bada jende elizkoia, eta bada burdel zalea; merkataritza eta nekazaritza alorretakoak, etab., etab.

Era berean, Izakiaren Maila desberdinak ere badaude: bihotz-zabal edo zeken, eskuzabal edo xuhur, bortitz edo baketsu, garbi edo lizun; barrutik nolakoak garen, halako bizitza egoerak erakarriko ditugu.

Lizun batek, beti, haragikeria eszena, drama, eta are gehiago, tragediak ere erakarriko ditu, eta horietan murgilduta aurkituko du bere burua.

Mozkor batek mozkorak erakarriko ditu, eta bere

burua beti tabernetan sartuta ikusiko du; hori begi bistakoa da.

Zer erakarriko du lukurariak, berekoiak? Zenbat arazo, espetxe, ezbehar?

Hala ere, samindutako jendeak, sufritzeaz nekatuta, aldatzeko gogoia du, bere historiaren egoera aldatzeko gogoia.

Koitaduak! Aldatu egin nahi dute, eta ez dakite nola; ez dute prozedura ezagutzen; kale itsuan sartuta daude.

Atzo gertatu zitzaiena gertatzen zaie gaur, eta bihar ere gertatuko zaie; akats berberak errepikatzen dituzte, eta ez dute bizitzak emandako leziorik ikasten, ezta burutik behera egurra emanda ere.

Bere bizitzan, gauza guztiak errepikatzen dira; gauza berak esaten dituzte, gauza berak egiten dituzte, gauza berberaz damutzen dira.

Gure barnean amorrua, gutizia, lizunkeria, bekaizkeria, harrokeria, nagikeria, sabelkeria, etab., elementu zital hauek ditugun bitartean, drama, komedia eta tragedia errepikatze aspergarri honek jarraitu egingo du.

Zein da gure maila morala? Edo hobeto esanda: zein da gure *Izakiaren Maila*?

Izakiaren Maila erabat aldatzen ez den bitartean, gure miseria, gertaera, ezbehar eta zoritxar guztiak errepikatzen jarraituko dugu.

Mundu honetako eszenatokian, gugandik kanpo gertatzen den guztia, zirkunstantzia guztiak, barruan darraigunaren isla dira soilik.

Arrazoi osoz esan dezakegu, irmotasun osoz, *“kanpoko barrukoaren isla dela”*.

Norbera barrutik aldatzen denean, eta aldaketa hori erradikala denean, kanpoko, zirkunstantziak aldatu egiten dira, baita bizitza ere.

Azken boladan, (1974. urtea), besteren lur sail bat bereganatu zuten jende talde bat behatzen aritu naiz. Hemen Mexikon, jende horrek “paraxutistak” ezizen bitxia du.

Churubusco landa-auzoan bizi dira, nire etxetik oso hurbil, horregatik hurbiletik ikertzeko aukera izan dut..

Pobrea izatea inoiz ezin daiteke delitua izan; larriena ez dago horretan, bere Izakiaren Mailan baizik.

Egunero beraien artean liskartzen dira, mozkortu egiten dira, elkar iraintzen dute, bere zoritxar-lagunen hiltzaile bihurtzen dira, txabola zikinetan bizi dira, bertan maitasunaren ordez gorrotoa da nagusi.

Askotan pentsatu dudana haxe da: lagun horietako edozeinek, bere barneko gorrotoa, amorrua, lizunkeria, mozkorkeria, gaizki esatea, krudelkeria, norberekoikeria, kalumnia, bekaizkeria, buruzalekeria, harrokeria, etab., etab., etab., ezabatuko balitu, beste

pertsona batzuen gustukoa izango litzateke, antzekotasun psikologikoaren lege hutsez, jende finagoarekin, espiritualagoarekin elkartuko litzateke; erlazio berri horiek behin betiko aldaketa ekonomiko eta soziala sortuko lukete.

Hori izango litzateke, delako lagun horri, estolda zikin horretatik, zulo horretatik ateratzeko bide emango liokeen sistema.

Beraz, benetan aldaketa erradikala nahi badugu, gutako bakoitzak (zuria edo beltza, horia edo kobre-kolorekoa, ezjakin edo ilustratua, eta abar dela ere), lehenik eta behin, Izakiaren zein Mailatan dagoen ulertu behar du.

Zein da gure *Izakiaren Maila*? Horri buruz inoiz hausnartu al duzue? Aurkitzen garen egoera ezagutu ezean, beste maila batera pasatzea ez litzateke posible izango.

Eskailera Zoragarria

Benetako aldaketarako bihotz-deia izan behar dugu, errutina aspergarri honetatik atera, bizitza mekaniko huts eta neketsu honetatik irten.

Argi eta garbi ulertu behar dugun lehen gauza hauxe da: gutako bakoitza, izan burgesa edo proletarioa, diruduna edo erdi mailako klasekoa, aberatsa edo miserablea, benetan, *Izakiaren Maila* jakin batean dago.

Mozkorren *Izakiaren Maila* eta abstemioarena ezberdinak dira, prostitutarena eta dontzeilaren maila oso ezberdinak dira. Diogun hau ukaezina da, eztabaidaezina.

Gure kapituluaren zati honetara iritsita, ez da alferrikakoa izango, bertikalki eta maila asko dituen eskailera, behetik gorantza hedatzen imajinatzea.

Dudarik gabe, hauetako eskailera-mailaren batean gaudе; beheko mailetan gu baino jende okerragoa egongo da; goiko mailetan gu baino pertsona hobeak aurkituko dira.

Bertikal zoragarri horretan, *Eskailera Miresgarri* horretan, Izakiaren Maila guztiak aurki ditzakegula argi dago. Pertsona bakoitza ezberdina da, eta hau inork ezin du ukatu.

Zalantzarik gabe, ez gara aurpegi itsusi edo politez hitz egiten ari orain, ezta adin kontuaz ere. Jende gaztea eta zaharra dago, jada hiltzorian dauden zaharrak eta ume jaioberriak.

Denbora eta urteak, hau da, jaio, hazi, garatu, ezkondu, ugaltu, zahartu eta hiltzea, Horizontaleko kontuak dira soilik.

Eskailera zoragarrian, Bertikalean, denbora kontzepturik ez dago. Eskala honen mailetan *Izakiaren Mailak* aurki ditzakegu soilik.

Jendearen itzaropen mekanikoak ez du ezertarako balio; gauzak denborarekin hobeak izango direla uste dute; gure aitona-amonek eta birraitona-amonek horrela pentsatzen zuten; hala ere, gertaerek aurkakoa erakutsi dute.

Balio duena *Izakiaren Maila* da, eta hau Bertikala da; maila batean gaude, baina beste maila batera igo gaitzke.

Aipatzen ari garen *Eskailera Zoragarriak*, *Izakiaren Maila* ezberdinez ari denak, ez du benetan denbora linealarekin zerikusirik.

Bada une oro gure gaineratik dagoen goragoko *Izakiaren Maila* bat. Ez dago inongo etorkizun horizontal urruntan, hemen eta orain baizik, gure barruan, Bertikalean.

Edozeinek uler dezake, eta nabarmena da, bi lerroak -Horizontala eta Bertikala- momentu oro gure barnepsikologian daudela, eta gurutzua osatzen dutela.

Nortasuna, Bizitzaren lerro Horizontalean garatzen eta zabaltzen da. Bere denbora linealaren barruan jaio eta hiltzen da; iragankorra da; hildakoaren nortasunak ez du inongo etorkizunik; ez da Izakia.

Izakiaren maila, Izakia bera, ez da denborazkoa, ez du zerikusirik lerro Horizontalarekin; geure barruan aurkitzen da. Orain, Bertikalean.

Argi eta garbi, geure berezko Izakia gugandik kanpo bilatzea, zentzugabea izango litzateke.

Honako ondorioa adieraztea ezinbestekoa da: kanpoko mundu fisikoan lortutako, titulu, gradu, lanpostu hobetze eta abarrek ez dute sekula, ez benetako gorospena, ez Izakiaren berrebaluatzea, ez eta *Izakiaren Mailan* goragoko koskara igarotzeko aukera ekarriko.

Errebeldia Psikologikoa

Gure irakurleei geure barruan puntu matematiko bat badela gogoraraztea ez dago soberan.

Zalantzarik gabe, delako puntu hori ez da sekula iraganen aurkitzen, ezta etorkizunean ere.

Puntu misteriotsu hori aurkitu nahi duenak, hemen eta orain, bere baitan bilatu behar du, instant honetan, ez segundo bat aurrera, ez segundo bat atzera.

Gurutze Santuaren bi makilek, Bertikalak eta Horizontalak, puntu honetan egiten dute topo.

Beraz, une oro bi bideren aurrean gaude: Horizontala eta Bertikala.

Horizontala oso itxuratia dela nabarmena da, jende guztia hortxe dabil: haizeak nora, zapiak hara.

Bertikala desberdina dela nabaria da; hori, errebelde burutsuen bidea da, iraultzaileena.

Norbait bere baitaz oroitzen denean, bere burua lantzen duenean, arazo eta bizitzaren pena guztiekin identifikatzen ez denean, praktikan bide bertikaletik doa.

Argi dago emozio negatiboak ezabatzea sekula ez dela zeregin erraza; gure bizimoduarekiko identifikazio guztia galtzea: era guztietako arazoak, negozioak, zorrak, letra-ordainketa, hipotekak, telefonoa, ura, argia, etab., etab., etab.

Hainbat arrazoi direla medio, enplegua edo lana galdu duten langabetuek, diru-faltagatik sufritzen dutela jakina da, eta bere egoera ahaztea, ez arduratzea, bere arazoarekin ez identifikatzea, ikaragarri zaila da.

Sufritzen dutenek, negar egiten dutenek, traizioaren bateko biktima izan diren haiek, bizitzaren ezbehar handi baten, esker-txarraren, kalumnia edo iruzurren baten biktimek, egiaz, euren burua, euren barrena ahazten dute; euren benetako Izaki intimoa ahazten dute, beraien tragedia moralarekin guztiz identifikatzen dira.

Norberaren barne-lana da Bide Bertikalaren funtsezko ezaugarria. Norberaren barne-lana burutu ezean, inork ez lezake, inoiz, *Errebeldia Handiaren* biderik hartu.

Aipaturiko *lana*, Psikologia motakoa da; gauden une hauxe, orainaldia, nolabait eraldatzeaz arduratzen da. Unez une bizitzen ikasi behar dugu.

Adibidez, arazo sentimental, ekonomiko edota poli-

tikoren batengatik etsipenak jota dagoen pertsonak, bere barnea ahaztu egin du.

Halako pertsona instant batean gelditzen bada, egoera behatzen badu, eta bere barneaz gogoratzen saiatzen bada, eta gero, bere jarreraren zentzua ulertzen saiatzen bada.

Apur batean, dena pasatzen dela pentsatzen badu, bizitza ametsezkoa dela, iheskorra, eta heriotzak mundu honetako harrokeria guztiak errauts bihurtzen dituela hausnartzen badu.

Azken finean, bere arazoa huskeria, lasto sua, segituan itzaltzen den sugarra baino ez dela ulertzen badu, bat-batean, ezustean, dena aldatu dela ikusiko du.

Erreakzio mekanikoak eraldatzea posible da, alderake-ta logikoa eta *Izakiaren Auto-hausnarketa intimoaren bitartez*.

Bizitzaren zirkunstantzia desberdinen aurrean jendeak mekanikoki erreakzionatzen duela nabaria da.

Jende gaixoa!, beti biktima bihurtzen dira. Norbaitek lausengatzen dituztenean irribarre egiten dute; apaltzen dituztenean, sufritu egiten dute. Iraindu egiten dute irainduak izan direnean; zauritu egiten dute zaurituak izan direnean; inoiz ez dira libre; beren lagun hurkoek, itxaropenetik tristurara, poztasunetik etsipenera eramateko boterea dute haien gain.

Bide horizontaletik doan pertsona horietako bakoitzak

musika tresna baten antza du, eta, musika tresna horrekin, bere lagun hurkoek nahi dutena jotzen dute.

Erlazio mekanikoak eraldatzen ikasten duena, praktikan, “Bide Bertikaletik” abiatzen da.

Honek, “Izakiaren Mailan”, funtsezko aldaketa adierazten du, *“Errebeldia Psikologikoaren”* emaitza ezin hobea.

Esentzia

Haur jaioberri guztiak eder eta maitagarri bihurtzen dituena, bere esentzia da; bera da bere benetako errealitatea.

Haurtxo guztien Esentziaren ohiko hazkundera oso eskasa, hasiberria da benetan.

Giza gorputza espeziearen lege biologikoen arabera hazten eta garatzen da; hala ere, halako aukerak oso mugatuak dira Esentziarentzat.

Zalantzarik gabe, Esentzia bere kabuz, laguntzarik gabe, oso gradu txikian haz daiteke soilik.

Garbi eta itzulingururik gabe hitz eginda, zera esango dugu: Esentziaren berezko hazkunde naturala, lehenengo hiru, lau eta bost urteetan soilik da posible, bitzizaren lehenengo zatian.

Jendeak uste du, Esentziaren hazkundera eta bilakaera beti modu jarraian ematen dela, eboluzio mekanikaren

arabera. Baina, Gnostizismo Unibertsalak argi eta garbi erakusten du hau ez dela horrela gertatzen.

Esentzia gehiago hazi dadin, zerbait benetan berezia gertatu behar da, zerbait berria egin behar da.

Norberaren barne-lana aipatu nahi dut bereziki. Esentziaren garapena, soilik lan kontziente eta borondatzeko pairamenen bidez da posible.

Hau ulertzea beharrezkoa da: lan hauek ez dute lanbidea-rekin zerikusirik, ez banku, ez zurgintza, ez igeltserotza, ez trenbide-konponketa, ezta bulego kontuekin ere.

Lan hau nortasuna garatu duen pertsona oroentzat da; zerbait psikologikoa da.

Ego, ni, ni neu, neure burua..., deitzen dugun hori, geure barruan daukagula jakina da.

Tamalez, Esentzia preso aurkitzen da, egoan murgilduta, eta hau negargarria da.

Ni psikologikoa desegitea, bere elementu zitalak suntsitzea premiazkoa da, geroraezina, atzeraezina... Horixe da gure barne-lanak duen esanahia.

Aurretik Ni psikologikoa desegiten ez badugu, Esentzia ezin izango dugu inoiz askatu.

Erljioa, Buddha, Jakinduria, zeruetan dagoen gure Aitaren min partikulak, eta *Izakiaren Auto-Errealizazio in-*

timorako behar ditugun datu guztiak Esentzian daude.

Barruan ditugun elementu zitalak aurretik desegin gabe, inork ezingo luke Ni psikologikoa ezabatu.

Garai hauetako krudelkeria nazkagarria errauts bihurtu behar dugu: bekaizkeria, tamalez, ekintzen ezkutu eragile bihurtu dena; gutizia jasanezina, bizitza hain mingots bilakatu duena; gaizki-esate nazkagarria; hainbeste zorigaito sortzen dituen kalumnia; mozkorrak; hain usain txarra darion lizunkeria zikina; etab., etab., etab.

Egite higuigarri horiek guztiak errauts kosmiko bihurtu ahala, Esentzia askatzeaz gain, hazi egingo da, eta harmonia betean garatuko da.

Zalantzarik gabe, ni psikologikoa hiltzen denean, esentziak gure barruan distira egiten du.

Esentzia libreak edertasun intimoa eskaintzen digu; halako edertasunean dute jatorria zorion perfektuak eta benetako Maitasunak.

Esentziak perfekzio zentzumen ugari ditu, eta ohi ez bezalako botere naturalak.

“Geure baitan hiltzen” garenean, Ni psikologikoa desegiten dugunean, Esentziaren zentzumen ederrez eta botereez gozaten dugu.

Norbere burua salatzea

Gutako bakoitzak barnean daraman Esentzia goitik dator, zerutik, izarretatik.

Zalantzarik gabe, Esentzia zoragarriaren iturburua “LA” nota da (Esne Bidea, bizi garen Galaxia).

Esentzia preziatua, “SOL” nota (Eguzkia) eta “FA” nota (Planeta-sistema) zeharkatu ondoren, mundu honetan sartu, eta geure baitan barneratzen da.

Gure gurasoek, izarretatik datorren Esentzia hau hartzeko, gorputz egokia sortu zuten.

Geure buruarekin gogor lan eginda, eta lagun hurkoaren alde sakrifikatuta, itzuliko gara, garaile, Uraniako barne sakonera.

Mundu honetan arrazoiren batengatik bizi gara, zerbaitetarako, faktore bereziren bat dela eta.

Gugan, jakina, ikusi, ikasi eta ulertu beharreko asko dugu, geure bizitzari, geure buruari buruzko zerbait ja-

kin nahi badugu, behintzat.

Tragikoa da bere existentziaren zergatia ezagutu gabe hiltzen denaren existentzia.

Gutako bakoitzak, geure kabuz, jabetu behar du norberaren bizitzak zer zentzu duen, zerk mantentzen gaituen atsekabe-kartzelan.

Bistan da bizitza samintzen digun zerbait badela gudan, eta horren kontra tinko borroka egin beharra daukagula.

Ez da ezinbestekoa ezbeharrean jarraitzea, hauts-kosmiko bihurtu behar dugu hain ahul eta zorigaitzoko bilakatzen gaituen hori.

Titulu, ohore, diploma, diru, arrazionalismo subjektibo hutsal eta betiko bertutez harropuzteak ez du ezertarako balio.

Ez dugu inoiz ahaztu behar hipokresiak eta nortasun faltsuaren handikeria txepelek, jende baldar, zaharkitu, atzerakoi eta erreakzionario bihurtzen gaituztela. Berritasuna ikusteko ez gara gauza.

Heriotzak esanahi ugari ditu, positiboak zein negatiboak. Kontuan har dezagun Jesus Kristo Kabir handiak esan zuena: *“Hildakoek hilobira ditzatela beraien hildakoak”*.

Izan ere, zenbait jende bizirik egon arren, hilda dago

norberaren barne-lana egiteko. Beraz, baita barruko edonolako eraldaketa egiteko ere.

Beraien dogma eta sinesmenetan kateatuta dauden pertsonak dira; iraganeko oroitzapen asko eta askorekin batera harri bihurtu den jendea da; antzinako aurreiritziz betetako gizabanakoak; esamesen esklaboak dira, izugarri epelak, axolagabeak; batzuetan sasijakintsuak, egia berea delakoan, hala esan ziotelako, etab., etab., etab.

Jende honek ez du ulertu nahi mundu hau “Psikologia-Gimnasioa” dela, eta honen bidez, gure barnean darabagun zatarkeria guztia desegitea posible izango litzatekeela.

Koitadu horiek dauden egoera tamalgarria sakonki ulertuko balute, izaturik dar-dar egingo lukete.

Hala ere, pertsona hauek bere buruari buruzko iritzirik onena dute, beraien bertuteez harrotzen dira. Ezin hobeak, onberak, lagunkoiak, prestuak, eskuzabalak, adimentsuak direla, eta beraien betebeharrak betetzen dituztela sentitzen dute.

Eguneroko bizitza eskola itzela da, baina bizitza bera helburutzat hartzea zentzugabekoa da, argi eta garbi.

Egunero bizi dugun bizimodua, bizitza bera dela uste dutenek, ez dute ulertu “Eradaketa Eraldaketa” lortzeko, norberaren barne-lana burutzea beharrezkoa dela.

Zoritxarrez, jendea mekanikoki bizi da, ez du inoiz barne-lanari buruzko ezer entzun...

Aldatzea beharrezkoa da, baina, jendeak ez daki nola aldatu; asko sufritzen du, eta ez daki zergatik sufritzen duen ere.

Dena ez da dirua edukitzea. Pertsona aberats askoren bizitza benetan zorigaitzokoa izaten da.

Bizitza

Eguneroko bizitzaren arloan, harritzeko moduko kontrasteak aurkitzen ditugu. Dirudun jendeak, egundoko etxebizitzak eta lagun asko dituztenek, batzuetan izugarri sufritzen dute.

Pikatxoaia eta palaz lan egiten duten langile xumeak, edo erdi mailako klaseko pertsonak, batzuetan, zorion betean bizi izaten dira.

Izugarri aberatsak diren asko, sexu-inpotentziak jota daude, eta andere handi aberatsek saminez negar egiten dute, senarrak leialtasuna galdu dielako.

Lurreko aberatsek, urrezko karioletan dauden putreak dirudite, garai hauetan ezin dira “bizkartzainik” gabe bizi.

Estatu-gizonek arrastaka daramatzate kateak, inoiz ez daude libre, alde guztietan, leporaino armaz beteta da goen jendez inguraturik ibiltzen dira.

Azter dezagun egoera hau arreta handiagoz. Bizitza zer den jakin beharra daukagu. Bakoitza nahi duen iritzia emateko libre da.

Esanak esan, benetan inork ez daki ezer, bizitza inork ulertzen ez duen arazoa da.

Jendeak bere bizitza musu-truk kontatu nahi digunean, gertaerak, izen-abizenak, datak eta abar aipatzen ditu, eta bere kontaktak egitean poza sentitzen du.

Koitaduek ez dakite beraien kontakizunak osatugabe daudenik, izan ere, gertaerak, izenak eta datak, filmaren kanpoko aldea besterik ez dira, barneko aldea falta da.

Premiazkoa da “kontzientzia-egoerak” ezagutzea, gertaera orori halako edo bestelako gogo-aldarte dagokio.

Egoerak barnekoak dira eta gertaerak, berriz, kanpokoak, kanpoko gertakizunak ez dira den guztia.

Har ditzagun barne-egoeratzat asmo onak zein txarrak, buruhaustek, depresioa, sineskeria, beldurra, susmoa, gupida, norberarekiko estimua, norberarekiko gehiegizko estimazioa; zorion-sentipen egoerak, atsegin-egoerak etab., etab., etab.

Dudarik gabe, barne-egoerak kanpoko gertakizunekin bat etor daitezke, edo hauek eragindakoak izan daitezke, edo gerta daiteke, gertakizunekin inolako harremanik ez izatea.

Edonola ere, egoerak eta gertaerak ez dira gauza bera. Gertakizunak ez dira beti dagokien egoerekin bat etortzen.

Gertaera atsegin baten barne-egoera, gertaera horri dagokion egoerarekin bat ez etortzea gerta liteke.

Gertaera desatsegin baten barne-egoera, gertaerarekin bat ez etortzea gerta liteke.

Denbora luzez zain egon garen gertakizuna iristean, zerbait falta dela sentitzen dugu.

Benetan, zegokion barne-egoera falta zen, kanpoko gertaerarekin bat etorri beharko lukeena.

Sarritan, espero ez dugun gertaera izaten da momenturik gozoenak ematen dizkiguna.

Barne-egoera

Barne-egoerak kanpo gertakariekin modu egokian konbinatzea, adimentsu bizitzen jakitea da.

Edozein gertaera adimentsu bizitzeak, berari dagokion egoera jakin bat eskatzen du.

Baina, zoritxarrez, jendeak bere bizitza berrikusten duenean, berau, kanpoko gertaerez soilik osatuta dagoela pentsatzen du.

Koitaduak! Gertaera jakin bat edo beste gertatu izan ez balitzaie, bere bizitza hobea zatekeela uste dute.

Zorte kontua dela uste dute, eta zorionsu izateko aukera galdu dutela.

Galdutakoaz damu dira, arbuiatutakoaz atsekabe, hanka sartze eta zorigaitz zaharrak oroitzuz nahigabetu egiten dira.

Jendeak ez du konturatu nahi landare gisa bizitzea ez dela bizitzea, eta kontzienteki bizi izateko gaitasuna,

arimaren barne-egoeren kalitatearen menpe dagoela soilik.

Egiazki, ez du inongo garrantzirik zertaraino diren ederrak bizitzaren kanpoko gertaerak; une horietan barne-egoera egokian ez bagaude, unerik gozoenak monotonoak gerta dakizkiguke, nekagarriak edo soil-soilik aspergarriak.

Baten bat larri dago eztei-festaren zain, gertakari bat da, baina, gerta liteke gertaeraren une horretan, hain arduratuta dagoenez, benetan inongo atseginik ez izatea; eta hura guztia protokolo bat bezain hotz eta lehor bihurtzea.

Eskarmentuak erakutsi digu, otordu edo dantzaldi batera doazen pertsona guztiek, ez dutela benetan gozaten.

Festarik hoberenean, inoiz ez da aspertuta dagoen norbait falta; eta piezarik zoragarrienek, batzuk alaitzen dituzten bitartean, beste batzuei negarra eragiten diete.

Oso bakanak dira, kontzienteki, kanpoko gertakizun bat barne-egoera egokiarekin konbinatzen dakiten pertsonak.

Pertsonak kontzienteki bizitzen ez jakitea tamalgarria da, negar egiten dute barre egin behar dutenean, eta barre egiten dute negar egin behar dutenean.

Kontrola beste gauza bat da. Jakituna alai egon daiteke, baina inoiz ez frenesi zoroz beteta; triste bai, baina,

inoiz ez etsita edo abailduta; indarkeriaren erdian la-sai; orgian abstemio; garbi lizunkeria artean, eta abar.

Pertsona malenkoniatsu eta ezkorrek bizitzaz iritzi txarrena dute, eta ez dute bizipozik.

Egunero ikusten dugu zorigaitzoko izateaz gain, gainera -eta hau da okerrena-, gainontzekoei bizitza samintzen dion jendea.

Jende hau egunero festaz festa bizi izanda ere, ez litza-teke aldatuko; gaitz psikologikoa barruan daramate. Horrelako pertsonak barne-egoera guztiz maltzurak dituzte.

Alabaina, pertsona horiek euren buruak zuzen, santu, bertutetsu, zintzo, adeitsu, martiritzat dauzkate, eta abar, eta abar.

Bere burua aintzakotzat gehiegi hartzen duen jendea da; euren burua gehiegi maite dutenak dira.

Euren buruaz gehiegizko gupida dute, eta euren erantzukizunak saihesteko ihesbideak bilatzen dituzte beti.

Horrelako pertsonak behe emozioetara ohituta daude, eta begi bistakoa da. Arrazoi horrengatik, gizatiarrak ez diren azpi-elementu psikikoak sortzen dituzte egunero.

Zorigaitzeko gertaerak, zorte-kolpeak, miseriak, zorrak, arazoak eta abar, bizitzen ez dakiten pertsonentzat bai-

no ez dira.

Edozeinek jantzi dezake bere burua kultura intelektual aberats batekin, baina, oso gutxi dira zuzentasunez bizitzen ikasi duten pertsonak.

Norberak, kanpoko gertaerak kontzientziaren barneko egoeretatik banandu nahi dituenean, duintasunez bizitzateko gaitasun falta adierazten du, hain zuzen ere.

Kanpoko gertaerak eta barne-egoerak kontzienteki konbinatzen ikasten dutenak, arrakastaren bidetik doaz.

Okerreko egoerak

Zalantzarik gabe, norbere buruaren behaketa zorrotzean, eguneroko bizitzaren kanpoko gertaeren eta kontzientziaren barne-egoeren arteko bereizketa logikoa egitea, beti gertatzen da atzeraezina eta geroraezina.

Momentu jakin batean non kokatuak gauden jakitea premiazkoa da, bai norberaren kontzientziaren barne-egoerarekiko, bai gertatzen ari zaigun kanpoko gertaera jakin baten jatorriarekiko.

Bizitza berez, denboran eta espazioan zehar garatzen den gertaera multzoa da.

Norbaitek esan zuen: *“Bizitza, gizakiak Ariman korapilatuta daraman martirio katea da”*.

Bakoitza libre da nahi duen bezala pentsatzeko; nik uste dut, une labur bateko plazer iragankorren ondorengoak, desengainua eta samina direla.

Gertakizun bakoitzak bere kutsu berezia izaten du, eta

barne-egoerak ere modu ezberdinetakoak dira; hau ukaezina da, eztabaida ezina.

Benetan, norberaren barne-lana, kontzientziaren egoera psikologiko ezberdinei buruzkoa dela azpimarratu behar da.

Inork ezingo luke ukatu, gure barnean, hutsegite asko daramagula gure gain, eta egoera okerrak badirela.

Zinez, benetan aldatu nahi badugu, behar-beharrezkoa, premiazkoa eta atzeraezina da, kontzientzia egoera oker horiek errotik aldatzea.

Egoera okerren erabateko aldaketak, eguneroko bizitzan guztizko eraldaketak sorrarazten ditu.

Norberak egoera okerren gainean serio lan egiten duenean, jakina, bizitzako gertaera ezatseginek ezin dute horren erraz mindu.

Bizipena bizi izanda bakarrik uler daitekeen zerbait adierazten ari gara, gertakizuna gertatu den esparru berean sentituz ulertzen dena.

Norberaren barne-lanik burutzen ez duena zirkunstantzien biktima izaten da beti; itsasoko ekaitz uretan dabilen egur-puska ziztrina bezalakoa da.

Gertakizunak, konbinazio ugari erabiliz, etengabe aldatzen dira; bata bestearen atzetik etortzen dira olatu-kolpeak bezala, influentziak dira.

Egiaz, gertakizun onak eta txarrak daude; gertaera batzuk beste batzuk baino hobeak edo txarragoak izango dira.

Zenbait gertaera aldatzea posible da; emaitzak eta egokierak aldatzea, etab., benetan posibilitateen artean dago.

Baina, badira benetan aldatu ezin diren egokierak. Azken kasu hauek kontzienteki onartu egin behar dira, batzuk oso arriskutsuak izan ez ezik, mingarriak ere badiren arren.

Zalantzarik gabe, agertutako arazoarekin identifikatzen ez garenean nahigabea desagertu egiten da.

Bizitza, joan-etorrian dabilen barne-egoera multzoa dela kontuan hartu behar dugu; geure bizitzaren benetako historia, bereziki, egoera hauekin guztiekin dago osatua.

Geure existentzia osoa berraztertzean, guk geuk zuzenean baieztatu dezakegu, egokiera desatsegin asko direla posible barne-egoera okerren ondorioz.

Alejandro Magno, izatez neurritsua bazen ere, harrokeriatik, gehiegikeriei eman, eta hauek, heriotza sorraziti zioten.

Frantzisko I.a, adulterio zikin eta gorrotagarri baten ondorioz hil zen, oraindik ere, historiak ederki asko du gogoan.

Marat, moja zital batek hil zuenean, harrokeriaz eta bekaizkeriaz bete-bete eginda zegoen, berak baina, guztiz zuzentzat zuen bere burua.

Oreinen Parkeko damek, dudarik gabe, Luis XV.a zeritzon larru-jotzaile izugarriaren bizitasuna erabat ahitu zuten.

Ugari dira askonahi, amorru edo jeloskortasunagatik hiltzen direnak; hau ondo asko dakite psikologoek.

Gure borondateak zentzugabeko joera bat indar handiz berretsi bezain laster, hilerri edo panteoirako izan-gai bihurtzen gara.

Otelo, zeloak zirela eta, hiltzaile bihurtu zen; eta, kartze-la, oker dauden zintzoz beteta dago.

Gertaera pertsonalak

Norbere buruaren behaketa sakona eta osoa egitea atzerazina da, okerreko egoera psikologikoez jabetzekotan.

Zalantzarik gabe, okerreko barne-egoerak zuzen daitezke prozedura egokien bidez.

Nolanahi ere, barne-bizitza kanpoko gertaera erakartzen dituen imana denez, premiazkoa eta atzerazina da, ahalik eta azkarren, okerreko egoera psikologikoak gure psiketrik ezabatzea.

Okerreko egoera psikologikoak zuzentzea behar-beharrezkoa da, funtsean, zenbait gertaera zitalen jatorria aldatu nahi dugunean.

Zenbait gertaerarekiko dugun harremana aldatzea posible da, gure baitatik zentzugabeko hainbat egoera psikologiko ezabatuz gero.

Kanpoko egokiera suntsitzaileak kaltegabeko bihur daitezke, are gehiago, konstruktibo bihur daitezke, oke-

rreko barne-egoerak zentzuz zuzenduz gero.

Norberak alda dezake jasaten ditugun gertaera desatseginen jatorria, barru-barrutik garbitzen denean.

Egoera psikologiko zentzugabeak inoiz zuzentzen ez dituen, bere burua sendotzat duena, gertakizunen biktima bihurtzen da.

Zorigaitzoko existentzia baten bilakaera aldatu nahi denean, ezinbestekoa da gure barruko ordenarik gabeko etxea txukuntzea.

Jendea guztiaz kexatzen da, sufritu, negar egin, protesta egiten du; bizitza aldatu nahiko luke, aurkitzen den zorigaitzetik irten; zoritxarrez, ez dute norberaren barne-lanik egiten.

Jendeak ez du konturatu nahi barruko bizitzak kanpoko gertakizunak erakartzen dituela, eta hauek mingarriak badira, zentzugabeak diren barne-egoeren ondorioz direla mingarriak.

Kanpoko barrukoaren isla besterik ez da; barrutik aldatzen denak, gauza berriak eragiten ditu.

Kanpoko gertaerak ez lirateke inoiz, gertaerekiko dugun erreakzionatzeko modua bezain garrantzitsuak izango.

Iraintzailearen aurrean lasai egon zinen? Lagun hurkoaren adierazpen desatseginak atseginez hartu zenuen?

Zein izan zen zure erantzuna maitearen leialtasun ezaren aurrean? Jeloskortasunaren pozoiak hartu al zintuen? Norbait hil al zenuen? Kartzelan al zaude?

Ospitaleak, hilerriak edo hilobiak, kartzelak, kanpoko gertaeren aurrean burugabe erreakzionatu, eta huts egin zuten zintzoz beterik daude.

Gizon batek bizitzan erabil dezakeen armarik onena, egoera psikologiko egokia izatea da.

Piztiak armagabetu, eta traidoreei mozorroa ken diezaiekegu, barne-egoera egokien bitartez.

Okerreko barne-egoerek, giza gaiztakeriaren babesik gabeko biktima bihurtzen gaituzte.

Eguneroko bizitzako gertakizun desatseginei, barruko jarrera egokiarekin aurre egiten ikas ezazue.

Ez identifikatu inongo gertaerarekin; gogoan izan dena pasatzen dela; bizitza filma balitz bezala ikusten ikas ezazue, eta onura jasoko duzue.

Ez ahaztu, okerreko barne-egoerak zuen psiketik ezabatzen ez badituzue, baliorik ez duten gertakariak zoritxarrera eraman zintzakete.

Kanpoko gertaera bakoitzak, zalantzarik gabe, txartel egokia behar du; hau da, beharrezko egoera psikologikoa.

Ni ezberdinak

Ugaztun arrazionalak, modu okerrean gizakia deritzonak, egiazki ez du banakotasun zehatzik.

Zalantzarik gabe, humanoidearen batasun psikologiko eza da hainbeste zailtasun eta samintasunen zergatia.

Gorputz fisikoa batasun osoa da, eta osotasun organiko gisa lan egiten du, gaixorik ez badago behintzat.

Baina, humanoidearen barneko bizitza ez da inola ere psikologia batasun bat. Zenbait eskola sasi esoterikok eta sasi okultistak esaten dutena esaten dutela ere, honen guztiaren gauzarik larriena hauxe da: gizabanako bakoitzaren barne sakonean psikologia-antolaketak ez izatea.

Egiatzki, horrelako baldintzetan, pertsonen barne bizitzan ez dago osotasuna duen lan harmoniatsurik.

Humanoidea, bere barne-egoerari dagokionez, psikologia aniztuna da, “nien” batura.

Garai ilun honetako ezjakin ilustratuek, “nia” gurtzen dute, jainkotu egiten dute, aldareetan jartzen dute, “Alter Ego”, “Ni Gorena”, “Jainkozko Nia”, etab., deitzen diote.

Bizi garen aro ilun honetako “sasijakintsuek” ez dute konturatu nahi, “Ni Gorena” eta “Behe-mailako Nia”, ego aniztun berberaren bi atal direla.

Humanoideak ez du, egiazki, “Ni Iraunkorrik”, penagarriak eta zentzugabeak diren “Ni” ezberdin mordoa baizik.

Animalia intelektual koitadua, modu okerrean gizakia deritzona, ordenarik gabeko etxe baten antzekoa da. Etxe horretan, nagusi bakarra egon beharrean, beti agindu, eta gogoak ematen diena egin nahi duten morroi asko daude.

Sasi esoterismo eta sasi okultismoaren akatsik handiena hauxe da: besteek edota norberak, hasierarik eta bukaerarik gabeko “Ni iraunkor eta aldaezina” dutela uste izatea.

Horrela pentsatzen dutenek kontzientzia esnatuko balute, nahiz eta une batean izan, euren kabuz egiaztatu ahal izango lukete, humanoide arrazoiduna ez dela denbora luzean berbera izaten.

Ugaztun intelektuala, psikologia ikuspuntutik begirata, etengabe aldatzen ari da.

Pertsona batek Luis izena duelako beti Luis dela uste izatea, oso txantxa itsusi baten antzekoa da.

Luis deritzon gizaseme horrek baditu bere baitan beste “ni” batzuk, beste ego batzuk, une ezberdinetan bere nortasunaren bitartez adierazten direnak, eta Luisek gutizia gogoko ez izan arren, bere baitako beste “ni” bategi deitu dezagun Pepe- gogoko du gutizia, eta horrela behin eta berriro.

Inor ez da etengabe pertsona berbera izaten. Benetan ez dago oso jakintsua izan beharrik, gizaseme bakoitzaren aldaketa kontaezinez eta kontraesanez konturatzeko.

Norbaitek “Ni Iraunkor eta Aldaezina” duela uste izatea, zalantzarik gabe, hurkoarekiko eta norberarekiko gehiegikeria bat egitearen parekoa da.

Pertsona bakoitzaren barruan, pertsona asko bizi dira, “ni” asko. Esna, kontziente dagoen edozein pertsonak egiazta dezake hau, bere kasa eta modu zuzenean.

Ego maitea

Goiko maila eta behekoa gauza beraren bi atal direla kontuan izanik, hurrengo ondorioa finkatzea ez dago soberan: “ni gorena”, “behe-mailako nia”, ego ilun eta aniztun beraren bi alderdi dira.

“Ni Jainkotiarra” edo “Ni Gorena” deiturikoa, “Alter Ego” edo antzeko zerbait, “Ni neuaren” amarru bat da egiazki, norbere buruari iruzur egiteko modu bat.

“Niak” mundu honetan eta beste munduan jarraitu nahi duenean, Ni jainkotiar hilezko baten uste faltsuarekin engainatzen du bere burua.

Gutako inork ez du egiazko “ni” bat, iraunkorra, aldagaitza, betierekoa, gorena, eta abar, eta abar.

Gutako inork ez du egiazki, benetako eta zinezko Izaki Batasunik; zoritxarrez, benetako banakotasunik ere ez dugu.

Egoak hilobiaz haraindiko bizitza izan arren, hasiera eta amaiera ere baditu.

Egoa, “nia”, inoiz ez da banakoa, bateratua. Jakina, “Nia” “Niek” osatzen dute.

Ekialdeko Tibeten “egoei” “agregatu psikiko” deitzen zaie, edo soilik “balioak”, izan azken hauek positiboak ala negatiboak.

“Ni” bakoitza pertsona desberdin bat bezala ikusten badugu, honakoa baieztatu genezake nabarmenki: “munduan bizi den pertsona bakoitzaren baitan, pertsona asko daude.”

Gutako bakoitzaren baitan ikaragarritzko pertsona pila bizi dela ukaezina da, batzuk hobeak, beste batzuk okerragoak.

Ni hauetako bakoitza, pertsona hauetako bakoitza, bere nagusitasuna lortzeko lehiatzen da, bakarra izan nahi du, adimen intelektuala, edo gune emozional eta motorra kontrolatzen ditu ahal duen guztietan, beste batek ordezkatzeko duen arte.

Ekialdeko Tibeten, “Ni Anitzen Doktrina”, benetako igarleek, egiazko argieginak irakatsi zuten.

Gure akats psikologiko bakoitza honako edo halako Ni batean irudikatuta dago. Edonola ere, milaka edota milioika akats dugunez gero, nabarmenki, gure baitan jende asko bizi da.

Gai psikologikoetan, argi eta garbi nabarmendu ahal izan dugu pertsona paranoikoek, egolatrek eta mitomanoek, ez lioketela ezergatik ere uko egingo Ego mai-tearen gurtzari.

Zalantzarik gabe, jende honek “ni” anitzen doktrina ikaragarri gorrotatzen du.

Norberak, benetan, bere burua ezagutu nahi duenean, bere burua behatu behar du, eta nortasunaren baitan dauden “ni” desberdinak ezagutzen saiatu.

Gure irakurleren batek, oraindik, “ni” anitzen doktrina hau ulertzen ez badu, bere burua behatzeko kontuetan abilezia falta duelako da, soil-soilik.

Geure buruaren barne behaketan jarduten dugun neurrian, geure nortasunaren baitan bizi den jende asko, “ni” asko aurkituko ditugu geure kabuz.

Ni Anitzen doktrinari uko egiten diotenek, Jainkozko Ni bat gurtzen dutenek, zalantzarik gabe, inoiz ez dute serio euren burua behatu. Oraingo honetan, era Sokratikoan hitz eginez, hauxe esango dugu: jende honek ez jakiteaz gain, ez dakienik ere ez daki.

Egiazki, ezingo genuke inoiz geure burua ezagutu, norbere buruaren behaketa serio eta sakonik gabe.

Pertsona batek bere burua Bat dela hartzen duen neurrian, edozein barne aldaketa ezinezkoa izango dela garbi dago.

Erabateko aldaketa

Gizakiak bere burua “bat”, “bakarra”, “indibiduala” dela sinesten jarraitzen duen bitartean, erabateko aldaketa ezinezkoa izango dela begi-bistakoa da.

Lan esoterikoa norbere barrenaren behaketa zorrotzarekin hasten da, eta behaketa honek faktore psikologikoen ugaritasuna, niak edo elementu zitalak erakusten ditu; hauek gure barrenetik deuseztatzea, erauztea premiazkoa da.

Zalantzarik gabe, inola ere ez litzateke posible izango akats ezezagunak ezabatzea; izan ere, lehenbailehen eta aldez aurretik, gure Psiketik bereizi nahi duguna behatu egin behar da.

Lan mota hau ez da kanpoko, barnekoa baizik; honako edo halako gizabide-eskuliburuk, edo kanpoko eta azaleko sistema etikok, arrakastara bideratu ditzakeela uste dutenak, guztiz oker dira.

Gure barne-lana, norbere buruaren behaketari arreta osoa jarriz hasten da. Horregatik, egite zehatz eta behin betiko honek, gutako bakoitzaren ahalegin pertsonal berezia eskatzen du.

Argi eta garbi hitz eginez, eta itzulingururik gabe, honako hau nabarmentzen dugu modu enfatikoan: norberaren lana ez lezake beste inork egin.

Barruan daramatzagun faktore subjektibo guztiak zuzenean behatu gabe, ezin da gure psikologian inolako aldaketarik egin.

Akatsen ugaritasuna ontzat hartzeak, horien azterketa eta behaketa zuzenaren beharra baztertuz, aitzakia edo ihesbidea adierazten du, norbere buruarengandik ihesa, auto-engainu modu bat.

Norberaren behaketa zentzudun baten ahalegin zorrotzaren bidez, inongo ihesbide motarik gabe, horrela soilik ikusi ahal izango dugu, argi eta garbi, ez garela “bat”, “asko” baizik.

“Niaren” aniztasuna onartzea eta behaketa zorrotz baten bidez nabarmentzea, bi alderdi ezberdin dira.

Norbaitek “Ni Anitzen Doktrina” onar dezake, inoiz egiaztatu ez arren; azken hau, soilik nork bere barrena kontu handiz behatuz da posible.

Gure baitako behaketa intimorako lana saihestea, aitzakiak bilatzea, degenerazio seinale argia da.

Gizaki bat ezin da aldatu, beti bat bera dela uste duen bitartean; eta argi dago, lan honen helburua, hain zuzen ere, gure barne-bizitzan apurkako aldaketa lortzea da.

Erabateko eraldatzea aukera zehatz bat da, eta norma-lean, norbere baitako lanik egiten ez denean, aukera hau galdu egiten da.

Gizakiak bat dela sinetsita jarraitzen duen bitartean, erabateko aldaketaren abiapuntua ezkutuan egongo da.

“Ni Anitzen Doktrina” errefusatzen dutenek argi erakusten dute beraien barrena ez dutela inoiz seriozki behatu.

Inongo ihesaldirik gabe egindako norbere barrenaren behaketa zorrotzari esker, “bat” ez garela, “asko” baizik egiaztatu ahal izango dugu gure kabuz.

Iritzi subjektiboen munduan, zenbait teoria sasi-esoteriko edo sasi-okultistak, norbere buruarengandik ihes egiteko balio dute, kalezulo gisa.

Beti pertsona bat eta bera delako ilusioa, zalantzarik gabe, barne-behaketarako oztopoa da.

Norbaitek esan lezake: “Badakit ez naizela bat, Gnosiak erakutsi dit”. Baieztapen hori oso zintzoa izan arren, alderdi doktrinal horri buruz bizi izandako esperientzia osoa egon ezean, baieztapen hori kanpokoa eta azalekoa izango litzateke, besterik ez.

Nabarmendu, esperimentatu eta ulertzea funtsezkoa

da; horrela soilik lan egin daiteke kontzienteki erabateko aldaketa lortzeko.

Gauza bat da baieztatzea eta beste bat ulertzea. Norbaitek zera esaten duenean: “ulertzen dut ez naizela bat, asko baizik”; berriketa txepel eta anbiguo hutsa izan beharrean, benetako ulermena bada, zera erakusten, adierazten eta nabarmentzen du: “Ni anitzen” doktrinaren erabateko egiaztapena.

Ezagupena eta Ulermena desberdinak dira. Hauetan lehena gogamenarena da, bihotzekoa bigarrena.

“Ni Anitzen Doktrina” ezagutze hutsak ez du ezertarako balio; zoritxarrez, bizi garen garai hauetan, ezagutza ulermenetik haratago joan da. Izan ere, “animalia intelektual” koitaduak, modu okerrean gizakia deritzonak, ezagutzaren aldea besterik ez du garatu, eta, zoritxarrez, Izakiaren aldea ahaztu egin du.

“Ni Anitzen Doktrina” ezagutzea eta ulertzea funtsezkoa da, benetako aldaketa erradikala lortzeko.

Gizakia, bat ez dela “asko baizik”, ikuspegi honetatik bere barrena arretaz behatzen hasten denean, zalantzarik gabe, bere barne-izaerari buruzko lan serioa hasia du.

Behatzailea eta behatua

Argia da, eta ulertzea ez da zaila gertatzen: *norbait bat ez dela, asko baizik*, ikuspegi horretatik bere barrena serio behatzen hasten denean, orduan hasten da, benetan, bere baitan daraman guztiari buruz lan egiten.

Honako akats psikologiko hauek, norberaren barne-behaketa lanerako, traba, oztopo, eragozpen dira: mitomania (handinahikeria, norberaren burua Jainkotzat hartzea), egolatria (Ni iraunkor bat dagoela uste izatea; edozein Alter-Egoren antzekoak gurtzea), paranoia (sasijakintsua izatea, nork bere burua aski izatea, harropuzkeria, norberak hutsik ez duela uste izatea, harrokeria mistikoa, besteren ikuspuntua ikusten ez dakien pertsona).

Bat garela uste izatean, zentzugabeko uste horrekin jarraitzean, ni iraunkor bat daukagulakoan, norberaren barne-lan serioa erabat ezinezkoa da.

Beti *bat* dela uste duena, ez da inoiz bere elementu zitalengandik bereizteko gai izango. Pentsamendu, sen-

timendu, desira, emozio, grina, estimu bakoitza, etab., etab., bere izaeraren funtzionalismo ezberdintzat, aldaezintzat hartuko ditu; eta gainera, besteren aurrean bere burua zuritu ere egingo du, norberaren halako akatsa eta bestelako akatsa, herentziazkoak direla esanez.

Ni Ugarien Doktrina onartzen duenak, desira, pentsamendu, ekintza, grina bakoitza, eta abar behatuz, haue-tako bakoitza, halako edo bestelako ni ezberdin bati dagokiola ulertzen du.

Norberaren barne-behaketaren edozein atletak serio lan egiten du bere baitan, eta barnean daramatzen elementu zital ezberdinak bere Psiketika aldentzen saiatzen da.

Norbera bere barrua, benetan, eta egiazki behatzen hasten bada, bitan zatitzen da: Behatzailea eta Behatua.

Zatiketa hau gertatuko ez balitz, agerikoa da ez genukeela Norberaren Baitako Ezagutzaren Bide zoragarrian aurrera pausorik egingo.

Nola behatu ahal izango genuke geure burua, Behatzailea eta Behatua bereizi nahiko ez bagenu; nola, hutsegite hori eginez gero?

Zatiketa hau gertatuko ez balitz, bistakoa da inoiz ez genukeela pauso bat bera ere aurrera egingo norbere buruaren ezagutzarako bidean.

Dudarik gabe, zatiketa hau gertatzen ez denean, ni plu-

ralaren prozesu guztiekin identifikatuta jarraitzen dugu.

Ni pluralaren prozesu ugariekin identifikatuta dagoena, gertakizunen biktima da beti.

Nola alda litzake gertakizunak norbere burua ezagutzen ez duenak? Nola ezagut lezake bere burua, barnetik bere burua inoiz behatu ez duenak? Nola beha lezake inork bere burua, aldez aurretik bitan -Behatzaile eta Behatuzatitzen ez bada?

Baina inor ezin da erabat aldatzen hasi, honako hau esateko gai ez den arte: “desira hau ezabatu beharreko animalia-nia da”; “pentsamendu berekoi hau, atsekabetzen nauen eta desegin beharra daukadan beste ni bat da”; “nire bihotza mintzen duen sentimendu hau, hauts kosmiko bihurtu behar dudan ni sarkina da”; etab., etab., etab.

Jakina, hau ezinezkoa da Behatzaile eta Behatu gisa inoiz zatitu ez denarentzat.

Norberaren prozesu psikologiko guztiak ni bakar, indibidual eta iraunkor baten funtzionalismotzat hartzen dituen, hain dago bere hutsegite guztiekin identifikatua, hain ditu bere burura erantsiak; arrazoi honengatik bere Psiketika bereizteko ahalmena galdua du.

Jakina, horrelako pertsonak ezin dira inoiz erabat aldatu, porrot biribilera kondenatua dagoen jendea da.

Pentsamendu negatiboak

Bizi garen inboluzio-garai eta dekadente honetan, sakon eta arreta osoz pentsatzea arraroa gertatzen da.

Intelektual-zentrotik zenbait pentsamendu sortzen dira, ez ni iraunkor batetik datozenak, ezjakin ilustratuek ergelki pentsatzen duten moduan, baizik eta euretako bakoitzaren “ni” ezberdinetatik.

Pertsona bat pentsatzen ari denean, norbere buruagan eta norbere buruaz pentsatzen ari dela uste du irmoki.

Intelektual ugaztun koitaduak ez du konturatu nahi bere adimena zeharkatzen duten pentsamendu anitzek, barruan daramatzagun “ni” desberdinetan dutela euren jatorria.

Honek esan nahi du ez garela benetako norbanako pentsalariak; zinez, oraindik ez dugu norbanako gogamenik.

Halere, barruan daramagun “ni” desberdin bakoitzak,

gure zentro intelektuala pentsatzeko erabiltzen du, ahal duen guztietan.

Zentzugabea litzateke, beraz, halako edo bestelako pentsamendu negatibo eta kaltegarri batekin identifikatzea, norberaren jabetza delakoan.

Jakina, halako edo bestelako pentsamendu negatiboa, une jakin batean gure Zentro Intelektuala gehiegikeriaz erabili duen “ni” batetik dator.

Mota desberdinetako pentsamendu negatiboak daude: susmo txarra, mesfidantza, beste pertsona baten ganako borondate txarra, pasio-jeloskortasuna, erlijio-jeloskortasuna, politika-jeloskortasuna, adiskidetasun edo familia motako jeloskortasuna, gutizia, lizunkeria, mendekua, amorrua, harrokeria, bekaizkeria, gorrotoa, erresumina, lapurreta, adulterioa, alferkeria, sabelkeria, etab., etab., etab.

Zinez, ditugun akats psikologikoak horrenbeste direnez, altzairuzko ahosabaia eta hitz egiteko mila mingain edukita ere, zehatz-mehatz ezingo genituzke zerrendatu.

Aurrez esandakoaren ondorio gisa, pentsamendu negatiboekin identifikatzea zentzugabekeria da.

Nolanahi dela ere, kausarik gabeko ondoriorik izatea posible ez denez, ospe handiz baieztatzen dugu ezingo litzatekeela inoiz pentsamendu bat berez existitu, berez sortuta.

Pentsalari eta pentsamenduaren arteko harremana agerikoa da, pentsamendu negatibo bakoitzak pentsalari desberdin batean du sorrera.

Gutako bakoitzaren baitan badira hainbat pentsalari negatibo, izaera bereko pentsamenduak bezainbeste.

Gai hau “Pentsalari eta pentsamenduaren” ikuspuntu pluralizatutik begiraturaz gero, gure psikean daramagun “ni” bakoitza, pentsalari desberdin bat da.

Ezin ukatu gutako bakoitzaren barruan, pentsalari gehiegi daudela; halere, hauetako bakoitza zati bat besterik ez izan arren, une jakin batean, osotzat du bere burua.

Mitomano, egolatra, nartzisista, paranoikoek inoiz ez lukete “Pentsalarien aniztasunaren” tesia onartuko, euren burua gehiegi maite baitute, munta handikotzat dute euren burua.

Jende ergel honek nola onar lezake gogamen indibidual, bikain eta zoragarri bat ez duela?

Halere, sasijakintsu hauek euren burua baino hobea-gorik ez dagoela uste dute, eta jakinduria eta apaltasuna erakusteko, Aristiporen tunikaz janzten dute euren burua.

Aristiporen mendeetako kondairak dio, jakinduria eta apaltasuna erakutsi nahian, petatxu eta zuloz betetako tunika zahar batez jantzi zela; Filosofiaren makila eskui-neko eskuaz heldu, eta Atenasko kaleetan zehar ibili zela.

Sokratesek, zetorrela ikusi zuenean, ahots ozenez oihu egin omen zuen: “Ene Aristipo, zure handikeria zure jantziaren zuloetatik zehar ikusten da!”

Berritasunari adi, pertzepzioari adi bizi ez dena, pentsatzen ari dela pentsatuz, edozein pentsamendu negatiboekin erraz identifikatzen da.

Ondorioz, pentsamendu negatibo horien sortzailea den “Ni negatiboaren” ahalmen gaiztoak indartzen ditu zoritxarrez.

Zenbat eta gehiago identifikatu pentsamendu negatibo batekin, orduan eta morrontza handiagoa izango dugu pentsamendu hori ezaugarritzat duen “niarekiko”.

Gnosiari, Bide Ezkutuari, norberaren barne-lanari dagokionez, geure tentazioak, hain zuzen ere, Gnosia, lan esoterikoa gorrotatzen duten “nietan” daude, izan ere, gure psikearen barruan egoten jarraitu nahi dute, eta badakite, Gnosia eta lana heriotza eragiteko moduko mehatxua direla.

“Ni negatibo” eta liskarzale horiek, gure Zentro Intelektualean metatutako zenbait buruko erretolikaz erraz jabetzen dira, eta sekuentzialki korronte mental kaltegarriak sortzen dituzte.

Une jakin batean gure Zentro Intelektuala kontrolatzen duten pentsamendu, “ni negatibo” horiek onartzen badi-tugu, orduan ez gara ondorioetatik libratzeko gai izango.

Ez dugu inoiz ahaztu behar “ni negatibo” orok “bere burua engainatzen” eta “gainontzekoak engainatzen” dituela, ondorioa: gezurra esaten du.

Bat-bateko indar galera bat sumatzen dugun aldiro, Gnosi bila dabilenak, lan esoterikorako ilusioa galtzen duenean, berotasuna galtzen duenean, eta benetan hobereana dena bertan behera uzten duenean, nabaria da ni negatibo batek engainatu duela.

“Adulterioaren ni negatiboak” etxe jatorrak suntsitzen ditu, eta euren seme-alabak zoritzarreko egiten ditu. “Jeloskortasunaren ni negatiboak” elkar maite dutenak engainatu, eta euren zoriona desegiten du.

“Harrokeria mistikoaren ni negatiboak” Bideko deboziodunak engainatzen ditu, eta hauek beren burua jakituntzat harturik, euren maisua gorrotatu edota saldu egiten dute.

Ni negatiboek geure eskarmentu pertsonalei heltzen die, geure oroitzapenei, geure nahirik hoberenei, geure zintzotasunari, eta honen guztiaren aukeraketa zorrotz baten bitartez, gezurrezko argi batean zerbait aurkezten du, liluratzten duen zerbait, eta porrota etortzen da.

Hala eta guztiz ere, norberak “nia” lanean ikusten duenean, alerta egoeran bizitzen ikasi duenean, iruzur hau ezinezkoa gertatzen da.

Banakotasuna

“Bat” garela uste izatea, egiazki txantxa gaiztoa da; zoritxarrez, ilusio hutsal hau gutako bakoitzaren barnean dago.

Zorigaitzez, beti iritzirik onena izaten dugu geure buruari buruz, benetako banakotasunik ere ez daukagula ulertzea ez zaigu inoiz bururatzen.

Gutako bakoitzak kontzientzia osoa eta berezko borondatea dugula uste izateko atrebentzia faltsua dugu, horixe da denetan okerrena.

Koitaduak gu! Bai ergelak garela! Ez dago zalantzarik, ezjakintasuna da zoritxarrik okerrena.

Gutako bakoitzaren barnean milaka gizabanako ezberdin daude, zenbait subjektu, elkarri errieta egiten dioten niak edota jendea, nagusitasuna lortzearen elkarrekin borroka egiten dutenak, eta ordenarik edo inolako konkordantziarik ez dutenak.

Kontziente bagina, hainbeste amets eta fantasiatik esnatuko bagina, zein ezberdina litzatekeen bizitza.

Gure zorigaitza gutxi balitz, emozio ezkorrek, amodio propioak eta geure buruarekiko iritzi onek liluratzen gaituzte, hipnotizatu egiten gaituzte; inoiz ez digute geure barnea gogoan izaten uzten, ez digute garen bezalakoak ikusten uzten.

Borondate bakarra daukagulakoan gaude, baina egia esan, borondate ezberdin asko ditugu (ni bakoitzak berea dauka).

Barne-ugaritasun honen guztiaren tragikomedia beldurgarria da; barneko borondate ezberdinek elkar jotzen dute, etengabeko gatazka bizi dute, norabide ezberdinetan aritzen dira.

Benetako Banakotasuna bagenu, ugaritasuna izan beharrean batasuna izango bagenu, gure helburuen jarraipena ere lortuko genuke, kontzientzia esna izango genuke, borondate partikularra, norberarena.

Aldatzea da egokia, hala ere, geure buruarekin zintzo izaten hasi beharra daukagu.

Geure buruaren inbentario psikologikoa egin beharra daukagu, falta zaiguna eta soberan duguna ezagutzeko.

Banakotasuna lortzea posible da, baina badaukagula uste badugu, aukera hori desagertu egingo da.

Bistakoa da, daukagula uste dugun hori lortzeko ez genuke inoiz ere borrokarik egingo. Fantasiak Banakotasuna dugula sinestarazten digu, eta gainera, badira munduan horixe irakasten duten eskolak.

Premiazkoa da fantasiaren aurka borroka egitea, honako hau edo bestelako hura bagina bezala agerrarazten gaitu fantasiak, nahiz eta egia esan, miserable, lotsagaldu eta maltzurak garen.

Gizakiak garelakoan gaude, nahiz eta banakotasunik gabeko ugaztun intelektualak baino ez izan.

Mitomanoak Jainkoak direlakoan daude, Mahatmak, etab., buru indibidual eta Borondate Kontzienterik ez dutelako susmorik ere ez daukate.

Egotatrek beraien ego kutuna hainbeste maite dutenez, beraien barnean ego aniztasuna dagoenik ez lukete inoiz ere onartuko.

Paranoikoek, betiko harrokeria ezaugarri dutela, liburu hau ez dute irakurri ere egingo.

Geure buruarekiko dugun fantasiaren aurka hiltzeraino borroka egitea behar-beharrezkoa da, emozio artifizial eta esperientzia faltsuen biktima izan nahi ez badugu; egokiera irrigarrietan jartzeaz gain, barne-garapenerako aukera oro gelditzen dute eta.

Animalia intelektuala hain dauka fantasiak hipnotizatu, lehoia edo arranoa dela amets egiten du, nahiz eta

lur-lokatzetako zizare ziztrin bat besterik ez izan.

Mitomanoak ez luke inoiz onartuko arestian egindako baieztapen errenkada; ezbairik gabe, esanak esan, bere burua artxihierofantetzat² dauka; fantasia ezereza baino ez dela sumatu ere egin gabe, “fantasia baino ez”.

Fantasia gizakiarengan modu orokorrean ekiten duen indar erreala da, humanoide intelektuala lo mantentzen duena; dagoeneko gizakia dela, benetako Banakotasuna duela, borondatea, buru partikularra, kontzientzia esna duela sinestarazten dio.

Bat garela uste dugunean, ezin gara geure baitan gauden leku horretatik mugitu, geldi jarraitzen dugu, eta azkenik degeneratu egiten gara, inboluzionatu egiten dugu.

Gutako bakoitza aro psikologiko jakin batean dago, eta ezin izango gara bertatik atera, gure baitan bizi diren pertsona edota ni horiez guztiez jabetu ezean. Argi dago, norberaren baitako behaketa sakonaren bitartez, gure psikean bizi den jende guztia ikusi ahal izango dugu, eta erabateko eraldaketa lortzeko, hauek ezabatu beharrean gaude.

Pertzepzio honek, norberaren baitako behaketa honek, nagusiki, geure buruarekiko genituen kontzeptu oker guztiak aldatzen ditu, eta ondorioz, benetako Banakotasunik ez dugula agerian jartzen dugu.

Baldin eta geure burua behatzen ez badugu, bat gare-

² Artxihierofante: Hierofante, Grezian, apaiz nagusia edo maisu handia. Artxihierofante: Maisu handi goren.

lakoan biziko gara, amets horretan, eta ondorioz, gure bizitza oker egongo da.

Gure lagun hurkoarekin harreman egokiak izatea ez da posible, harik eta gure barne-psikearen sakonean aldaketa egin arte.

Edozein barne-aldaketak, aurretik, barruan ditugun nien ezabaketa eskatzen du.

Inola ere ezingo genituzke ni hauek ezabatu, geure baitan behatu ezean.

Bat direla uste dutenek, euren buruaz iritzirik onena dutenek, aniztasun-doktrina inoiz onartuko ez luketenek, niak behatu ere ez dituzte egin nahi; beraz, beraiengan, aldatzeko edozein aukera ezinezkoa da.

Ezin da aldatu, ezabatzen ez bada. Baina, Banakotasuna duela uste duenak, ezabatu beharra duela onartuko balu, benetan, ezabatu beharrekoa zer den ez luke jakingo.

Hala ere, hauxe ez dugu ahaztu behar: bat dela uste duenak, bere buruak iruzur eginda, ezabatu behar duena zer den badakiela uste du; baina egiaz, ez dakienik ere ez daki, ezjakin ilustratua da.

Banako bihurtzeko, egoa ezabatu egin behar dugu; baina Banakotasunaren jabe dela uste duenak, ordea, ezinezkoa du egoa ezabatzea.

Banakotasuna erabat sakratua da; daukatenak bakanak dira, baina denek badaukatela uste dute.

Nola ezaba genitzake “niak”, “ni” bakarria daukagulakoan bagaude?

Egiazki, bere burua inoiz seriozki behatu ez duenak, soilik, uste du ni bakarria duela.

Alabaina, ikasbide honetan oso argiak izan behar dugu, benetako Banakotasuna, “goreneko nia” edo antzeko beste kontzepturen batekin nahasteko arrisku psikologikoa baitago.

Banakotasun Sakratua edozein “ni” motaz haratago dago, den hori da, beti izan dena eta beti izango dena.

Egiazko Banakotasuna Izakia da, eta Izakiaren izateko arrazoia Izakia bera da.

Bereiz ditzagun Izakia eta “nia”. “Nia” Izakiarekin nahasten dutenek, inoiz ez dute seriozki euren burua behatu.

Esentziak, kontzientziak, barruan daramagun ni multzo horren artean kateatuta jarraitzen badu, erabateko aldaketa ezinezkoa baino ezinezkoagoa izango da.

Bizitzaren liburua

Pertsona bat bere bizitzaren isla da. Heriotza eta gero jarraitzen duena, horixe da bizitza. Hauxe da heriotza-rekin irekitzen den bizitzaren liburuak duen esanahia.

Gai hau ikuspuntu psikologiko zorrotz batetik aztertuz gero, gure bizitzako edozein egun, egiatzki, bizitza osoaren erreplika txiki bat besterik ez da.

Hau kontuan izanda, honako ondorioa atera dezakegu: gizaki batek gaur barne-lanik egiten ez badu, ez da inoiz ere aldatuko.

Norbaitek barne-lana egin nahi duela adierazten duenean, eta biharko utzita, gaur lanik egiten ez duenean, adierazpen hori egitasmo hutsa baino ez da izango, gaurko eguna gure bizitza osoko erreplika baita.

Bada hor hauxe esaten duen herri-esaera bat: *“Ez utzi biharko gaur bertan egin daitekeena”*.

Gizaki batek honakoa esaten badu: *“bihar egingo dut barne-lana”*, ez du inoiz ere barne-lanik burutuko, beti

izango baita biharko egun bat.

Zenbait merkatarik beraien dendetan jartzen dituzten ohar, iragarki edo kartel batzuen antzekoa da hau: *“Gaur ez dut fidantzan emango, bihar bai”*.

Beharra duen norbait kreditua eskatzera iristen denean, ohar ikaragarri hau topatzen du, eta hurrengo egunean itzultzen bada, zoritxarreko ohar edo kartel hori topatzen du berriz ere.

Psikologian *“bihar egingo dut”* deritzon gaitza da hau. Gizaki batek *“bihar”* esaten badu, inoiz ez da aldatuko.

Geure barne-lana gaur egitea benetan premiazkoa, atzerazina dugu, etorkizunarekin edota aukera paregabe batekin ez dugu nagikeriaz amestu behar.

“Halako edo bestelako egin eta gero lan egingo dut” esaten dutenek ez dute inoiz barne-lanik burutuko, horiek dira Eskritura Santuetan aipatzen diren lurreko biztanleak.

Hauxe zioen ezagutu nuen lur-jabe boteretsu batek: *“lehenengo biribildu egin beharra daukat, eta gero egingo dut barne-lana”*.

Hilzorian, gaixorik zegoela bisita egin nion; orduan, galdera hauxe egin nion: *“Oraindik ere biribildu egin nahi al duzu?”*.

“Benetan damutzen naiz denbora alferrik galdu izana”,

erantzun zidan. Handik egun batzuetara hil zen, bere hutsegitea onartu ondoren.

Gizon hark lur asko zituen, baina inguruko ondasunen jabe egin nahi zuen, “biribildu”, bere etxaldea, zehatz-mehatz, lau bidez mugatua gera zedin.

“Egun bakoitzari dagokion ahalegina aski da!” esan zuen Jesus Kabir Handiak. Beti errepikaria den egunari dagokiona, gaur bertan geure burua behatu, geure bizitza osoaren miniatura delako.

Gizakia bere barne-lana egiten hasten denean, gaur bertan, bere disgustu eta penak behatzen dituenean, arrakastaren bidetik doa.

Ezagutzen ez duguna ezabatzea ez litzateke posible izango. Aurretik, geure akatsak behatu behar ditugu.

Gure eguna ezagutu ez ezik, berarekiko dugun erlazioa ere ezagutu beharra daukagu. Ohi ez bezalako gertakari bakanak izan ezik, bada zuzenean pertsona bakoitzak bizitzen duen ohiko egun bat.

Interesgarria da egunero behin eta berriz gertatzen dena behatzea, hitz eta jazoeren errepikatzea, pertsona bakoitzarekiko, etab.

Gertaera eta hitzen errepikatzea, edo behin eta berriz gertatzen dena aztertzea merezi du, auto-ezagutzara eramango gaitu.

Izaera mekanikoa

Inola ere ezin genezake gure bizitzaren une orotan gauzatzen den Errepikapen legea ukatu.

Egiazki, gure bizitzaren egun bakoitzean gertaerak, kontzientzia egoerak, hitzak, desioak, pentsamenduak, borondate ekintzak, etab., errepikatu egiten dira.

Jakina, norberak bere burua behatzen ez duenean, ezin da eguneroko etengabeko errepikatze horretaz konturatu.

Bistakoa da, bere burua behatzeko inolako interesik ez duenak, erabateko eraldaketa lortzeko ere ez du lanik egin nahi.

Eta hori gutxi balitz, bada barne-lanik egin gabe eraldatu nahi duen jendea ere.

Ez dugu ukatuko bakoitzak duen espirituaren benetako zoriontasun eskubidea, baina hau ere egia da: apaturiko zoriontasuna ezinezkoa baino ezinezkoagoa

izango litzateke, barne-lanik egingo ez bagenu.

Pertsona bat barrutik alda daiteke, egunero etortzen zaizkion gertakizunetikiko erreakzioak benetan aldatzea lortzen duenean.

Baina, eguneroko bizitzako gertakizunetikiko erreakzioak ezingo genituzke aldatu, barne-lan serioirik burutuko ez bagenu.

Gure pentsatzeko modua aldatu beharra daukagu, ez dugu hain axolagabeak izan behar, serioago bihurtu, eta bizitza beste modu batean hartu behar dugu, bere benetako zentzuan eta modu praktikoa.

Baina, gauden bezala jarraitzen badugu, egunero portatzen garen bezala portatuz, hutsegite guztiak errepikatuz, betiko zabarkeriaz, aldatzeko edozein aukera benetan deuseztatuta geratuko da.

Norberak bene-benetan bere burua ezagutzera iritsi nahi badu, bizitzako edozein egunetako gertakarietan, norberaren jokaera behatzen hasi beharra dauka.

Honekin ez dugu esan nahi, egunero norbere burua behatu behar ez dugunik; hauxe bakarrik adierazi nahi dugu: lehen egun bat behatzen hasi behar dugu.

Gauza guztiek hasiera bat behar izaten dute, eta gure bizitzako edozein egunetako jokaera behatzen hastea, hasiera ona da.

Logela, familia, jangela, etxe, kale, laneko, eta abarretako xehetasun txiki horiekiko erreakzio mekanikoak behatzea da benetan egokiena, norberak esan, sentitu eta pentsatzen duena.

Garrantzitsuena zera da, erreakzio horiek gero, norberak nola alda ditzakeen ikustea; baina, pertsona onak garelako uste badugu, inoiz ez garelako inkontzienteki eta oker portatzen uste badugu, inoiz ez gara aldatuko.

Beste ezer baino lehen, pertsona-makinak garelako ulertu behar dugu, agente sekretuek, ezkutuko niek kontrolatzen gaituzten txotxongilo hutsak.

Geure pertsonaren barruan, pertsona asko bizi dira; inoiz ez gara berberak; batzuetan, guran pertsona zekena agertzen da, beste batzuetan pertsona erretxina, beste edozein unetan pertsona eskuzabala, borondate onekoa; beranduago, pertsona iskanbilatsu edo kalumniatzailea; gero, santua, ondoren iruzurtia, etab.

Denetariko jendea daukagu gutako bakoitzaren barruan, mota guztietako niak. Gure nortasuna txotxongilo bat besterik ez da, panpina hitzuna, mekanikoa den zerbait.

Has gaitezen eguneko une labur batean kontzienteki portatzen; egunero minutu labur batzuetan bada ere, makina hutsak izateari utzi behar diogu, honek gure existentzian modu erabakigarrian eragingo du.

Geure burua behatzen dugunean, eta honako edo halako niak nahi duena egiten ez dugunean, argi dago makinak izateari uzten diogula.

Une bakar batean, norberaren borondatez egiten bada, makina izateari uzteko bezain kontziente egoteak, erabat aldatzen ditu zirkunstantzia desatsegin asko.

Zoritxarrez, egunero, bizitza mekanizista bizi dugu, ohikeriazkoa, zentzugabekoa. Gertakizunak errepikatzen ditugu, gure ohiturak berberak dira, inoiz ez ditugu aldatu nahi izan; gure zorigaiztoko existentziaren trena errail mekaniko horretan dabil, baina, hala ere, geure buruaz iritzirik onena daukagu.

Nonahi “mitomano” ugari dago, Jainkoa direla uste dutenak; izaera mekanikodunak, ohikoak, lurreko lokatzetako pertsonaiak, ni ezberdinek mugitzen dituzten zorigaiztoko panpinak; horrelako jendeak ez du barne-lanik egingo.

Ogi super-substantziala

Gure bizitzako edozein egun arretaz behatzen badugu, benetan kontzienteki bizitzen ez dakigula ikusiko dugu.

Gure bizitzak martxan dabilen trena dirudi, ohitura mekanikoen errail finkoetan mugituz, zurrun, existentzia hutsal eta azalekoa.

Harritzekoa da, baina inoiz ez zaigu ohiturak aldatzea bururatzen, badirudi beti-betikoa egiten aritzeaz ez gara aspertzen.

Ohiturek harri bihurtuta gauzkate, baina libre gara uste dugu; izugarri itsusiak gara, baina Apolo garelakoan gaude.

Jende mekanikoa gara, arrazoi honengatik, ez gara inola ere jabetzen bizitza honetan egiten ari garenaz.

Gure ohitura atzerakoi eta zentzugabeen ildotik ibiltzen gara, eta horrela, argi dago ez dugula benetako bizitza-

rik; bizi orde, landare gisa bizi gara, errukarri, eta ez dugu inpresio berririk jasotzen.

Pertsona batek eguna kontzienteki hasiko balu, argi dago egun hori, beste egunen aldean, oso ezberdina izango litzatekeela.

Norbera bere bizitza osoa, bizi duen eguna bezala hartzen duenean, gaur bertan egin beharrekoa biharko uzten ez duenean, benetan, norberaren barne-lanaren esanahia ezagutzera iristen da.

Inoiz ez dago garrantzirik ez duen egunik; bene-benetan erabat eraldatu nahi badugu, egunero geure burua ikusi, behatu eta ulertu egin behar dugu.

Alabaina, jendeak ez du bere burua ikusi nahi; zenbait, nahiz eta barne-lana egiteko gogoia izan, honako esaldia bezalakoekin zurriz du bere zabarkeria: *“Bulegoko lanak ez du barne-lanik egiten uzten”*. Hitz hauek ez dute zentzurik, hutsak, alferrikakoak, zentzugabeak dira; beraien nagikeria, alferkeria, Kausa Nagusiarekiko maitasun eza zurrizko baino ez dute balio.

Horrelako jendea, kezka espiritual handia izan arren, bistakoa da ez dela inoiz ere aldatuko.

Geure burua behatzea premiazkoa da, atzeraezina, gerora ezina. Norberaren barne-behaketa oinarrizkoa da benetakoa aldatzeko.

Zein da zure egoera psikologikoa jaikitzen zarenean?

Zein da zure aldartea gosaltzen duzun bitartean? Ez al zenuen pazientziarik izan ostalariarekin? Emaztearekin? Zergatik ez zenuen pazientziarik izan? Zerk aztoratzen zaitu beti?, eta abar.

Gutxiago erretzea edota jatea ez da egiten den aldaketa guztia, baina aurrerapauso bat adierazten du. Ondotxo dakigu bizioa eta tripazainkeria, gizagabe eta aberetiarak direla.

Bide sekretuan diharduenak gorputz fisiko lodiegia edukitzea, sabelalde gizona, eta inolako perfekzio eurrimiarik gabekoa izatea ez dago ondo. Tripazainkeria adieraziko luke honek, sabelkeria, baita nagikeria ere.

Existentziarako ezinbestekoak izan arren, eguneroko bizitzak, lanbideak, enpleguak, kontzientziaren ametsa eratzen dute.

Bizitza ametsa dela jakiteak ez du esan nahi ulertu dugunik. Ulermena, norberaren behaketa eta barne-lan gogorrarekin lortzen da.

Barne-lana egiteko, beharrezkoa da eguneroko bizi-moduaz lan egitea, gaur bertan, eta orduan ulertuko dugu Jaunaren Otoitzeko esaldi hark esan nahi duena: *“Emaiguzu gaur egun honetako ogia”*.

“Egun honetako” esaldiak grezieraz “Ogi super-substantziala” edo “Goiko Ogia” esan nahi du. Gnosiak Bizitza-Ogi hori ematen digu, zentzu bikoitzean eman ere: akats

psikologikoak desegiteko aukera ematen diguten ideia eta indarren bidez.

Honako edo halako “nia” hauts kosmiko bihurtzen dugun bakoitzean, eskarmentu psikologikoa lortzen dugu, “Jakituriaren Ogia” jaten dugu, ezaguera berri bat jasotzen dugu.

Gnosiak “Ogi Super-substantziala”, “Jakituriaren Ogia” eskaintzen digu, eta norberaren baitan hasten den bizitza berria zehaztasunez erakusten digu, norberaren barruan, hemen eta orain.

Baina, inork ezin du bere bizitza aldatu, edo existentziaren erreakzio mekanikoekin erlazionaturiko edozein gauza eraldatu, baldin eta ideia berririk izaten ez badu, eta Jainkoaren laguntzarik ez badu.

Gnosiak ideia berri horiek ematen ditu, eta “jarduteko modua” erakusten du, eta jarduteko modu honen birtatez, gogamenaz Gaingarri Indarren laguntza jaso dezake batek.

Gure organismoko behe-mailako zentroak, Goi-mailako Zentroetatik datozen ideiak eta indarra jasotzeko presatu behar ditugu.

Norberaren barne-lanean ez dago garrantzirik gabeko ezer. Edozein pentsamendu, txikiena dela ere, behatzea merezi du. Edozein emozio negatibo, erreakzio, eta abar, behatu egin behar da.

Etxeko nagusi ona

Garai beltz hauetan, bizitzaren ondorio kaltegarriak alde batera uztea oso zaila da, baina ezinbestekoa, bestela, bizitzak irentsi egiten gaitu.

Garapen animiko eta espirituala lortzeko, norberak bere baitan egiten duen edozer lan, beti isolamendua-rekin lotuta egoten da – hau zuzen ulertuta –, bizitzaren eraginpean, beti bizi garen moduan, ezin delako nortasuna besterik garatu.

Inolaz ere ez dugu nortasunaren garapenari aurka egiteko asmorik, jakina da existentzian ezinbestekoa dela, baina egia esan, artifiziala besterik ez da, ez da egiazkoa, ez da erreala gudan.

Ugaztun intelektual koitadua, modu okerrean gizakia deritzona, isolatu beharrean, eguneroko bizitzaren gertaera guztiekin identifikatzen bada, eta bere indar guztiak xahutzen baditu, bai emozio negatiboetan, bai norberarekiko estimuan, eta inola ere onbiderako ez den berriketa hutsal eta txepelean, bere baitan inolako

egiako elementurik ezin da garatu, ez behintzat mundu mekanikoari dagokion esparrutik kanpo.

Egia esan, bere baitan Esentziaren garapena benetan lortu nahi duenak, hermetikoki itxita egon behar du. Hori isiltasunarekin lotura estua duen zerbait intimoa da.

Esaldi hau antzinako garaietatik dator, Hermes izenari lotuta, gizakiaren barne-garapenari buruzko doktrina ezkutuan irakasten zenetik.

Norbaitek bere baitan zerbait erreala haztea nahi badu, bere energia psikikoen ihesa saihestu behar duela argi dago.

Norbaitek energia ihesak dituenean, eta bere intimitatean isolatuta ez dagoenean, ukaezina da bere psikologian ezin izango duela benetako zerbait garatu.

Ohiko bizitza arruntak errukigabe irentsi egin nahi gaitu; guk, egunero, bizimoduaren aurka borrokatu behar dugu, korrontearen kontra igeri egiten ikasi behar dugu.

Lan hau bizitzaren kontrakoa da, egunerokoarekin ez du zer ikusirik, hala ere, une oro praktikan jarri behar dugu; puntu honetan Kontzientziaren Iraultza aipatu nahi dut.

Eguneroko bizitzarekiko dugun jarrera, nagusiki okerra bada, eta denak guk nahi dugun bezala gertatu behar duela sinisten badugu, horrela behar duelako, des-

engainuak etorriko direla argi dago.

Jendeak gauzak ondo ateratzea nahi du, “horrela behar duelako”, denak bere planekin bat etorri behar duelako, baina errealitate gordina desberdina da; izan ere, norbera barrutik aldatzen ez den bitartean, gustatu ala ez, zirkunstantzien biktima izango da beti.

Bizitzari buruz, zozokeria sentimental ugari esan eta idazten da, baina Psikologia Iraultzailearen Tratatu hau, ordea, ezberdina da.

Doktrina hau harira dator, gertaera zehatz, argi eta behin betikoetara; honako hau serio baieztatzen du: “animalia intelektuala”, modu okerrean gizakia deritzona, hankabiko mekanikoa da, inkontzientea, lo dagoena.

“Etxeko nagusi onak” Psikologia Iraultzailea sekula ez luke onartuko; berak, bere eginbehar guztiak betetzen ditu: aita, senarra, etab. izatea, eta, horregatik, bere buruaz iritzirik onena du. Baina, naturaren helburuak betetzeko balio du soilik, eta hori da dena.

Hala ere, korrontearen kontra igeri egiten duen “etxeko nagusi ona” ere badagoela esango dugu, bizitzak irenstea nahi ez duena; alabaina, pertsona hauek oso urriak dira munduan, ez dira inoiz ugariak izaten.

Psikologia Iraultzailearen Tratatu honen ideien arabera pentsatzen dugunean, bizitzarekiko ikuspegi egokia lortzen dugu.

Bi munduak

Behatzea eta norbere burua behatzea bi gauza erabat desberdinak dira, hala eta guztiz ere, biek arreta eskatzen dute.

Behaketan arreta kanporantz bideratuta dago, kanpoko mundurantz, zentzumenen leihoen bidez.

Norbere buruaren barne-behaketan, arreta barrurantz bideratuta dago, eta horretarako kanpotik datozen pertzepzio-zentzumenek ez dute balio. Arrazoi hau nahikoa da, hasiberriari bere barne prozesu psikologikoen behaketa zaila gerta dakion.

Zientzia ofizialaren abiapuntua, bere alderdi praktikoan, behagarria den hori da. Norberaren barne-lanaren abiapuntua, norbere buruaren behaketa da, auto-behagarria den hori.

Ukaezina da, goiko lerroetan aipatutako bi abiapuntu hauek, noranzko erabat desberdinetara garamatzatela.

Norbait zientzia ofizialaren dogma zorrotzetan murgilduta zahartu daiteke, kanpo gertakariak ikasiz, zelulak, atomoak, molekulak, eguzkiak, izarrak, kometak, etab. behatuz, bere baitan inongo funtsezko aldaketarik bizi izan gabe.

Norbait barrutik eraldatzen duen ezagutza mota, inoiz ezin izango litzateke kanpo-behaketaren bidez lortu.

Gugan funtsezko barne-aldaketa zinez sor dezakeen benetako ezagutzak, norbere buruaren zuzeneko barne-behaketa du oinarrian.

Premiazkoa da gure ikasle Gnostikoei euren burua beha dezatela esatea, zein zentzutan behatu behar duten, eta horretarako arrazoiak ematea.

Behaketa, munduaren baldintza mekanikoak aldatzeko bitarteko bat da.

Norberaren barne-behaketa norbere baitan aldatzeko bitarteko bat da.

Honen guztiaren sekuentzia edo ondorio gisa, bi ezagutza mota daudela kementsu baieztatu dezakegu, eta baieztatu egin behar dugu: kanpokoa eta norberaren baitakoa. Ezagutzaren kalitateak bereiz ditzakeen zentro magnetikoa geure baitan eduki ezean, bi planoen edo ideien ordenen nahasketa honek nahaste-borrastera eramán gaitzake.

Doktrina sasi-esoteriko gorenak, oinarrian zientifiko-

tasun kutsu nabarmena dutenak, behagarria den arlokoak dira, halere, hasi berri askok barne-ezagutza gisa onartzen dituzte.

Bi munduren artean aurkitzen gara bada, kanpoko eta gure baitakoa. Lehenengoa, kanpoko pertzepzio-zentzumekin hautematen da; bigarrena, geure barne-behaketaren zentzumenerekin soilik hauteman daiteke.

Pentsamenduak, ideiak, emozioak, bihotz deiak, itxaropenak, desengainuak, etab., gure baitakoak dira, ohiko zentzumen arruntentzat ikusezinak, eta, aldiz, jangelako mahaia edo egongelako aulkiak baino errealagoak dira guretzat.

Egiaz, gure barne-munduan gehiago bizi gara, kanpokoan baino; hau ukaezina da, eztabaidaezina.

Geure baitako munduetan, geure isilpeko munduetan, maitatu egiten dugu, irrikatu egiten dugu, susmatu, bedeinkatu, madarikatu, bihotz deia izaten dugu, sufritu, gozatu, huts egiten digute, saritu egiten gaituzte.

Ukaezina da, bi munduak, geure baitakoa eta kanpokoak, esperimentalki egiaztagarriak dira.

Barne-mundua, geure buruan eta geure buruaren baitan behagarria dena da, hemen eta orain.

Lur planetaren edo Eguzki Sistemaren, edo bizi garen Galaxiaren “barne munduak” benetan ezagutu nahi dituenak, aldez aurretik bere mundu mina, bere baitako

bizitza partikularra, bere berezko “barne munduak” ezagutu behar ditu. *“Gizaki, ezagutu ezazu zeure burua, eta Unibertsoa eta Jainkoak ezagutuko dituzu”.*

“Norbera” deituriko “barne-mundu” hau zenbat eta gehiago miatu, orduan eta hobeto ulertuko dugu bi mundutan bizi garela aldi berean, bi errealitatetan, bi esparrutan, kanpokoan eta geure baitakoan.

Amildegia batetik ez erortzeko, hiri bateko kaleetan ez galtzeko, lagunak aukeratzeko, jende maltzurarekin ez elkartzeko, pozoia ez jateko, etab., “kanpoko munduan” ibiltzen ikastea ezinbestekoa da.

Modu berean, norbere baitako lan psikologikoaren birtartez, norberaren auto-behaketaren bidez miatu daitekeen gure “barneko munduan” ibiltzen ikasten dugu.

Zinez, bizi dugun garai ilun honetako giza arraza dekadentean, norberaren auto-behaketa zentzumena atrofiatuta dago.

Norbere buruaren behaketari ekiten diogun neurrian, barne-behaketaren zentzumena etengabe garatuz joango da.

Norbere buruaren behaketa

Norbere buruaren barne-behaketa, erabateko eraldaketa lortzeko bitarteko praktikoa da.

Ezagutzea eta behatzea ezberdinak dira. Askok norberaren behaketa eta ezagutza nahasten dituzte. Egongela batean, aulki batean eserita gaudela jakin dezakegu, baina honek ez du aulkia behatzen ari garenik esan nahi.

Badakigu une jakin batean egoera negatibo batean gaudela, urduritasun edota ziurgabetasun egoeran, agian arazoren bat dela eta, edota honako edo halako kontuaz kezkatuta gaudelako, etab., baina honek ez du hori behatzen ari garenik esan nahi.

Norbait begitan hartua al daukazu? Bakarren bat ez al duzu gogoko? Zergatik? Zuk pertsona hori ezagutzen duzula esango duzu... Mesedez?, beha ezazu, ezagutzea ez da inoiz behatzea; ez nahasi ezagutzea eta behatzea.

Norbere buruaren behaketa, ehuneko ehun aktiboa dena, norbere burua aldatzeko bitarteko bat da; ezagutzea, pasiboa dena, berriz, ez.

Egiazki, ezagutzea ez da arreta ekintza bat. Norberaren baitara zuzendutako arreta, geure barnean gertatzen ari denari zuzendutakoa, bada zer bait positiboa, aktiboa.

Har dezagun, hargatik, besterik gabe gogoak ematen digulako, eta askotan inolako motiborik gabe, begitan hartua daukagun pertsona batekiko kasua. Buruan pirlatzen zaizkigun pentsamendu mordoa sumatzen ditugu: norberaren baitan, nahasian, hizketan eta oihuka ari diren ahots multzoa, esaten ari direna; geure baitan sortzen diren emozio desatseginak, honek guztiak gure psikean uzten duen kutsu desatsegina, etab., etab., etab.

Jakina, egoera honetan gaudela, konturatzen gara begitan hartua daukagun pertsona, oso gaizki tratatzen ari garela geure baitan.

Baina hau guztiak ikusteko, zalantzarik gabe, norbere buruaren baitara nahita zuzendutako arreta behar da; ez da arreta pasiboa behar.

Arreta dinamikoak behatzailearen aldean du iturburua, pentsamenduak eta emozioak, aldiz, behatuaren aldean daude.

Honek guztiak hauxe ulertarazten digu: ezagutzea erabat pasiboa eta mekanikoa da, norbere buruaren behaketa ez bezala, berau ekintza kontzientea da.

Honekin, norbere buruaren behaketa mekanikorik ez dagoenik ez dugu esan nahi, alabaina, behaketa mota honek ez du zerikusirik aipatzen ari garen norbere

buruaren behaketa psikologikoarekin.

Pentsatzea eta behatzea ere oso ezberdinak dira. Nahi izanez gero, edozeinek nahi adina pentsa dezake bere buruaz, baina horrek ez du esan nahi, benetan, bere burua behatzen ari denik.

“Ni” ezberdinak jardunean ikusi behar ditugu, geure psikean atzeman, hauetako bakoitzaren barruan geure kontzientziaren portzentaje bat dagoela ulertu, hauek guztiak sortu izanaz damutu behar dugu, etab.

Orduan deiadar egingo dugu: Baina zertan ari da ni hau? Zer esaten ari da? Zer nahi du? Zergatik sufriarazten dit bere lizunkeriarekin? Bere haserrearekin?, etab., etab.

Orduan, geure baitan, pentsamendu-andana, emozioak, irrikak, pasioak, bakoitzaren komeriak, drama pertsonalak, landutako gezurrak, hitzaldiak, aitzakiak, morbositateak, plazer-oheak, haragikeria irudiak ikusiko ditugu.

Sarritan, loak hartu baino lehen, esna-alditik loaldirako iragate une horretan bertan, geure buruaren barruan elkarrekin hizketan ari diren zenbait ahots entzuten ditugu. Momentu horretan, gure makina organikoaren gune ezberdinekiko lotura hautsi behar duten ni ezberdinak dira, horrela, gero, mundu molekularrean, “Bosgarren Dimentsioan” murgiltzeko.

Berriketa

Premiazkoa, geroraezina, atzeraezina da barneko berriketa behatzea, baita berau zehazki zein lekutatik datoarren behatzea ere.

Zalantzarik gabe, orainaldiko eta etorkizuneko egoera psikiko inarmoniko eta desatsegin askoren jatorrizko kausa, barneko berriketa okerra da.

Jakina, alferrikako berriketa txepel horrek, eta oro har, kanpoko munduan ageri den hizketa kaltegarri, txar, zentzugabe guztiak barneko hizketaldi okerrean du bere jatorria.

Jakina da Gnosian badela *barneko isiltasunaren* praktika esoterikoa; hau, “Hirugarren Ganberako” ikasleek ezagutzen dute.

Honakoa argi eta garbi esatea ez dago sobera: *barneko isiltasuna* gauza oso zehatz eta mugatu bati dagokio.

Barne-meditazio sakonean gauden bitartean, pentsatze

prozesua nahita agortzen denean, *barneko isiltasuna* lortzen da; baina ez da hau kapitulu honetan azaldu nahi duguna.

Barneko isiltasuna lortzearren “gogamena hustea” edo “gogamena hutsik uztea” ere ez da paragrafo hauetan azaldu nahi duguna.

Aipatzen ari garen *barneko isiltasuna* praktikatzea, gogamenean zerbait sar dadin eragozteka ere ez da.

Egiazki, oso ezberdina den *barneko isiltasun* bati buruz ari gara oraintxe bertan. Ez da zerbait lausoa eta orokorra.

Dagoeneko gogamenean dagoen zerbaiten inguruan praktikatu nahi dugu *barneko isiltasuna*: pertsona, gertaera, norberaren edo besteren kontua, kontatu zigutena, halakok egin zuena, eta abarren inguruan, baina barruko mingaina astindu gabe, barne-barneko mintzaldirik gabe.

Kanpoko mingaina isiltzen ikasteaz gain, barnekoa, mingain sekretua isiltzen ikastea, aparta, zoragarria da.

Batzuk kanpotik isilik egoten dira, baina barneko mingainarekin lagun hurkoa bizirik larrutzen dute. Barneberriketa pozoitsu eta gaiztoak, barruko nahasmena sortzen du.

Barneko berriketa okerra behatzen badugu, erdipurdiko egiez egina dagoela konturatuko gara, edo elkarre-

kin nahiko modu okerrean erlazionatzen diren egiak direla, edota erantsi ala kendu den zerbait.

Zoritxarrez, gure bizitza emozionala norbere buruarekiko sinpatian oinarritzen da bakarrik.

Doilorkeria hori gutxi balitz bezala, geure burua bakarrik dugu gogoko, hain maitea dugun “nia”, eta gu gogoko ez gaituztenak begitan hartzeaz gain, gorrotatu ere egiten ditugu.

Geure burua gehiegi maite dugu, seko nartzisistak gara; hau ukaezina, erantzunezina da.

Norbere burua begiko izan, eta bere horretan kateatuta jarraitzen badugu, ezinezkoa baino ezinezkoagoa izango da Izakiaren edozein garapen.

Norberarena ez den ikuspuntua ikusten ikasi beharra daukagu. Besteren lekuan jartzen jakitea premiazkoa da.

“Honela bada, besteek zuei egitea nahi zenuketena guztia, egin zuek ere besteei” (Mateo: VII,12).

Ikasketa hauetan, geure barrutik eta modu ikusezinean, gizakiak elkarrekin portatzen garen modua da, benetan, axola duena.

Zoritxarrez, batzuetan adeitsuak eta egiazaleak ere izanagatik, ez dago zalantzarik, ezin ikusizko moduan eta barrutik, elkar oso gaizki tratatzen dugu.

Itxuraz onbera den jendeak, bere buruaren haitzulo sekretura eramaten ditu arrastaka bere hurkoak, hauei gogoak emandako guztia egiteko (irain, burla, iseka, etab.).

Harremanen mundua

Harremanen munduak oso modu zehatzean argitu behar ditugun hiru alderdi arras desberdin ditu:

Lehena: gorputz planetarioarekin erlazionatuta gaude, hau da, gorputz fisikoarekin.

Bigarrena: Lur planetan bizi gara eta, ondorioz, kanpoko munduarekin erlazionatuta gaude, eta geuri, familiartekoei, negozioei, lanbide gaiei, ogibideari, politikari eta abarrei dagozkien gaiekin ere bai.

Hirugarrena: gizakiak bere buruarekin duen erlazioa. Gehiengoarentzat harreman mota honek ez du inolako garrantzirik.

Tamalez, jendeari lehenengo bi harreman motak besterik ez zaizkio interesatzen, eta hirugarrenari erabateko axolagabekeriak begiratzen dio.

Zinez, “gizakia” deituriko “animalia intelektualaren” ar-

dura nagusiak, elikadura, osasuna, dirua, eta negoziok dira.

Baina, agerikoa da bai gorputz fisikoa eta baita munduaren kontuak ere, gugandik kanpokoak direla.

Gorputz planetarioa (gorputz fisikoa), batzuetan gaixorik egoten da, zenbaitetan osasuntsu, eta horrela behin eta berriro.

Gure gorputz fisikoa ezagutzen dugula uste izaten dugu beti, baina egia esan, zientzialaririk onenek ere ez dakite asko hezur-haragizko gorputzari buruz.

Ez dago zalantzarik, gorputz fisikoa, bere eraketa konplexu eta izugarria dela-eta, egiaz, gure ulermena baino askozaz ere haratago dago.

Bigarren harreman motari dagokionez, zirkunstantzien biktima gara beti; zirkunstantziak kontzienteki sortzen oraindik ikasi ez izana tamalgarria da.

Asko dira, ezeri edo inori egokitzeko, edota bizitzan benetako arrakasta izateko gai ez direnak.

Lan esoterikoaren ikuspegitik geure buruarengan pentsatzean, hiru harreman mota horietako zeinekin huts egiten dugun jakitea premiazkoa da.

Gure gorputz fisikoarekin dugun erlazioa okerra izatea gerta daiteke, eta ondorioz, gaixorik egotea.

Kanpoko munduarekin gaizki erlazonaturik egotea

gerta daiteke, eta ondorioz, estualdiak, arazo ekonomiko eta sozialak, eta abar, eta abar, eta abar izatea.

Geure buruarekin harreman txarra izatea gerta daiteke, eta jarraian, barneko argia falta zaigulako asko sufritzea.

Jakina, gure gelako lanpara instalazio elektrikoari lotuta ez badago, gure gela ilunpean egongo da.

Barneko argia falta dutelako sufritzen dutenek, Izakiaren Goiko Zentroekin konektatu behar dute euren gogamena.

Ukabezina da, gure Gorputz Planetarioarekin (gorputz fisikoa) eta kanpoko munduarekin ez ezik, geure berezko Izakiaren zati bakoitzarekin harreman egokiak sortu behar ditugu.

Eri ezkorrek horrenbeste mediku eta sendagaiez nekata, ez dute sendatzeko gogorik; eri baikorrek bizitzeko borrokatzen dute.

Montecarloko kasinoan, beren aberastasuna jokoan galdu zuten aberats askok euren buruaz beste egin zuten. Milioika ama txirok lan egiten du euren seme-alabak mantentzeko.

Asko dira, ahalmen psikiko eta barneko argirik ez dutelako, barne-lan esoterikoari uko egin dioten lur jotako izangaiak. Zoritxarrak aprobeztatzen dakitenak gutxi dira.

Tentazio gogor, lur-jotze eta atsekabe garaietan, norbere buruaren barne gomuta sakonari heldu behar diogu.

Gutako bakoitzaren sakonean, gure bihotz mindua sendatzeko zain, Tonanzin azteka, Stella Maris, Isis egiptoarra, Ama Jainkoa dago.

Norberak “bere Izatea gogoan” izan, eta zirrara hori bizitzen duenean, gorputzarekiko lan guztian mirarizko aldaketa bat gertatzen da, eta beraz, zelulek elikagai desberdin bat jasotzen dute.

Kanta psikologikoa

“Barne-begirunea” deritzon horri buruz hausnartzeko garaia iritsi da.

Zalantzarik gabe, “norbere buruarekiko barne-begirunea” izateak bere alde oso txarrak ditu; kontzientzia hipnotizatzeaz gain, energia asko galarazten digu.

Norbaitek norbere buruarekin hainbeste identifikatuta egoteko hutsegiterik egingo ez balu, norbere buruarekiko barne-begirunea ezinezkoa izango litzateke.

Norbait bere buruarekin identifikatzen denean, bere burua gehiegi maite du, bere buruari errukia izaten dio, bere buruari begirunea dio, honelakorekin eta halakorekin, emaztearekin, seme-alabekin, eta abarrekin beti ondo portatu dela pentsatzen du, eta inork ez dela inoiz aintzat hartu, etab. Labur esanda, santu hutsa dela, eta beste guztiak gaiztoak, doilorrak.

Norbere buruarekiko barne-begirunerik arruntentakoa hauxe da: norberari buruz besteek pentsa de-

zaketenaz kezkatzea; agian ondraduak, egiazaleak, egiazkoak, ausartak eta abar ez garela usteko dute.

Honek guztiak duen gauzarik bitxiena hauxe da: zoritxarrez, mota honetako kezkek eragiten diguten energia galera izugarria da, eta ez dakigu hori horrela denik.

Inolako kalterik egin ez diguten pertsonetikiko zenbait areriotasunezko jarrera, norbere buruarekiko barnebegirunean iturburua duten kezkek eragindakoak dira.

Baldintza hauetan, norbere burua hainbeste maitatuz, norbere buruarekiko hainbesteko begirunea izanik, “nia” edo hobeto esanda “niak” deuseztatu beharrean, argi dago ikaragarri indartzen direla.

Norbere buruarekin identifikatuta, bere egokierarekin asko errukitzen da, eta kontuak egiteari ere ematen dio.

Horrelaxe, honelakok, halakok, aitakideak, amakideak, bizilagunak, ugazabak, lagunak, eta abarrek, bere betiko ontasuna ez diotela behar bezala ordaindu uste du, eta horretan kateatuta, jasanezin eta gogaikarri bihurtzen da jende guztiarentzat.

Horrelako pertsona batekin ia-ia ez dago hitz egiterik, izan ere, arian-arian, edozein hizketaldi, bere kontu liburutxora eta hainbeste famatzen dituen sufrimenduetara iritsiko da.

Lan esoteriko gnostikoan, arima haztea, hurkoari barkatuz bakarrik dela posible dago idatzita.

Norbait une oro, aldiz aldi, betiko kantarekin, zor diotenarengatik, egin ziotenarengatik, sorrarazi zioten samintasunagatik sufritzen bizi bada, ezin izango da bere baitan ezer hazi.

Jaunaren otoitzak haxe dio: *“Barkatu gure zorrak, guk ere gure zordunei barkatzen diegunez gero”*.

Norberari zor diotela sentitzeak, besteek sortu zizkigutengatik dugun minak, eta abarrek arimaren barneko aurrerabide oro gelditzen dute.

Jesus Kabir Handiak haxe esan zuen: *“Konpon zaitetz lehenbailehen zeure etsaiarekin, berarekin auzitara zoazen bitartean; bestela, epailearen eskuetan jarriko zaitu eta epaileak ertzainaren eskuetan, eta kartzelara botako zaituzte. Benetan diotsut: Ez zara handik aterako azken txanpona ordaindu arte”* (Mateo, V, 25, 26).

Zor badigute, zorretan gaude. Azkeneko denarioa ere ordaintzeko exijitzen badugu, lehenago, azkeneko xentimoa ere ordaindu egin behar dugu.

Hau “Talion Legea” da, *“Bergia begi truke, eta hortza hortz truke”*. Gurpil zoroa, zentzugabea.

Guri egin ziguten kaltea ordaintzea, beheratzea, barkamena eskatzea exijitzen diegu besteei, geure burua ardi mantsotzat eduki arren, geuri ere odolkiak ordainetan eskatuko dizkigute.

Beharrezkoak ez diren legeen menpe jartzea zentzu-

gabea da, hobe da norbera beste eragin berri batzuen menpe jartzea.

Errukiaren Legea gizaki bortitzaren Legea baino eragin nagusiagoa da: *“Bergia begi truke, hortza hortz truke”*.

Premiazkoa, ezinbestekoa, geroraezina da lan esoteriko gnostikoaren eragin zoragarriaren menpe jartzea, zor digutela ahaztea, eta geure burua gehiegi aintzakitatzat hartzeko dugun edozein modu gure psiketik ezabatzea.

Inoiz ez dugu geure baitan onartu behar mendeku sentimendurik, erresuminik, emozio negatiborik, eragin zizkiguten kalteengatiko estutasunik, bortizkeriarik, bekaizkeriarik, zorren etengabeko eskerik, etab., etab., etab.

Gnosia benetan lan egin eta aldatu nahi duten izangai zintzoentzat da.

Jendea behatzen badugu, pertsona bakoitzak bere kanta duela garbi egiazta dezakegu.

Bakoitzak bere kanta psikologikoa dauka; kontu psikologikoen afera aipatu nahi dut biziki; bati zor diotela sentitzea, kexu izatea, norbere buruarekiko begirunea izatea, eta abar.

Batzuetan jendeak “bere kanta abesten du, hargatik, besterik gabe”, inork bultzatu gabe, inork burua berotu gabe, eta beste batzuetan, berriz, kopa batzuk ardo hartu ondoren.

Gure kanta aspergarria ezabatu egin behar dela dioguguk; beronek barnean ezgaitu egiten gaitu, energia asko lapurtzen digu.

Psikologia Iraultzaileari dagokionez, ondoegi abesten duen norbait, -ez gara ahots ederrari buruz ari, ezta kantu fisikoari buruz ere-, egiazki ezin daiteke bere burua baino harago joan; lehenaldian geratzen da.

Kanta tristeek ezindua duten pertsona batek ezin du bere Izakiaren Maila aldatu; ezin da bere izatea baino harago joan; goragoko Izakiaren maila batera pasatu ahal izateko, garena izateari utzi behar diogu, garena ez izatea da behar duguna.

Garena izaten jarraitzen badugu, ezin izango gara inoiz goragoko Izakiaren maila batera igaro.

Bizitza praktikoaren arloan ohi ez bezalako gauzak gertatzen dira. Sarri askotan, pertsona bat beste edozeinen lagun egiten da, besterik gabe bere kanta kantatzea erraza gertatzen zaiolako.

Zoritxarrez, harreman mota hauek bukatu egiten dira kantariari isiltzeko, diskoz aldatzeko, beste gauza bati buruz hitz egiteko, etab. eskatzen zaionean.

Orduan, kantari mindua beste lagun berri baten bila joango da, etengabe entzuteko prest dagoen norbaiten bila.

Kantariak ulermena eskatzen du, ulertuko duen norbait,

beste pertsona bat ulertzea hain erraza balitz bezala.

Beste pertsona bat ulertzeko beharrezkoa da norbere burua ulertzea. Zoritxarrez, kantari ona bere burua ulertzen duelakoan dago.

Kantari desengainatu asko dira, ulertuak ez direla esaten duen kanta kantatzen dutenak, eta beraiek pieza nagusi diren mundu zoragarri bat amesten dutenak.

Hala ere, kantari guztiak ez dira jendaurrekoak izaten, badira isilpekoak ere; ez dute beraien kanta zuzenean kantatzen, baina isil-gordeka aritzen dira.

Lan asko egin duen jendea da, gehiegi sufritu duena, huts egin diotela sentitzen duena, eta bizitzak, inoiz lortzeko gauza izan ez diren hura zor diela uste dute.

Normalean, barruko tristura handia sentitzen dute, monotonia sentsazioa eta izugarrizko asperdura, barru-barruko nekea edo frustrazioa; honen guztiaren inguruan pentsamenduak pilatu egiten dira.

Zalantzarik gabe, ezkutuko kantek Izakiaren barne-barneko auto-errealizaziorako bidea ixten digute.

Zoritxarrez, ezkutuko barne-kanta hauek, ohartu gabe gertatzen dira geure buruan, nahita behatu ezean.

Jakina, norbere buruaren behaketa orok norberaren baitan, barne-barneko txoko sakonetan, argia sartzen uzten du.

Gure psikean ezin izango litzateke inolako barne al-daketarik gertatu, geure buruaren behaketaren argitara eraman ezean.

Ezinbestekoa da, bai bakarrik egotean, bai beste pertsonekin harremanetan gaudenean, norbere burua behatzea.

Norbera bakarrik dagoenean, “ni” oso diferenteak, oso pentsamendu ezberdinak, emozio ezkorrak, eta abar agertzen dira.

Norbera bakarrik dagoenean, ez da beti lagun onarekin egoten. Normala da, naturala da bakardade hutsean oso lagun txarrekin egotea. “Ni” negatiboak eta arriskutsuenak norbait bakarrik dagoenean azaltzen dira.

Errotik eraldatu nahi badugu, geure sufrimenduak sakrifikatu egin behar ditugu.

Sarritan, gure sufrimenduak ahoskatu edo ahoskatu gabeko kanten bidez adierazten ditugu.

Itzulera eta errepikapena

Gizaki bat bere bizitza dena da, gizaki batek ez badu norberaren baitan ezer aldatzen, ez badu errotik bere bizitza eraldatzen, ez badu norberaren baitako lanik egiten, bere denbora modu penagarrian galtzen ari da.

Heriotza haxe da: bizitzaren hastapenera itzultzea, berriro errepikatzeko aukerarekin.

Literatura sasi-esoterikoan eta sasi-okultistan, *hurrengo bizitzen* gaiari buruz asko hitz egin da, hobe dugu *hurrengo existentzietz* arduratzea.

Gutariko bakoitzaren bizitza, garai guztiak barne, beti berbera da, existentziaz existentzia errepikatu egiten da, mendez mende.

Zalantzarik gabe, gure ondorengoen hazian jarraitzen dugu; hau frogatuta dagoen zerbait da.

Gutariko bakoitzaren bizitza, hiltzean betikotasunera eramaten dugun film biziduna da.

Gutariko bakoitzak bere pelikula eramaten du, eta berri-
ez ekartzen du, existentzia berri baten pantailan be-
rrero proiektatzeko.

Drama, komedia eta tragedien errepikapena, Errepika-
pen legearen oinarritzko axioma bat da.

Existentzia berri bakoitzean zirkunstantzia berberak
errepikatzen dira. Beti errepikatzen diren eszenetako
antzezleak, gure barnean bizi den jende hori da, “niak”
dira.

Gure bizitzan beti errepikatzen diren eszenak sortzen
dituzten “ni” horiek, antzezle horiek ezereztuz gero,
orduan, zirkunstantzia horien errepikapena ezinezkoa
izango litzateke.

Jakina, antzezlerik gabe ezin da eszenarik egon; hau
ukaezina da, eztabaida ezina.

Horrela aska gaitzke Itzulera eta Errepikapen Legee-
tatik; honela izan gaitzke aske benetan.

Jakina, gutariko bakoitzaren barnean dramatzagun
pertsonaietako bakoitzak (niek), existentziaz existen-
tzia paper berbera errepikatzen du; ezabatzen badaugu,
aktorea hiltzen bada, papera amaitu egiten da.

Errepikapen Legeaz edo Itzulera bakoitzean erre-
pikatzen diren eszenez hausnartuz, norberaren bar-
ne behaketaren bitartez, gai honi buruzko baliabide
ezkutuez jabetuko gara.

Aurreko existentzian hogeita bost (25) urterekin maitasun-historia bat izan bagenuen, zalantzarik gabe, existentzia berrian, konpromiso horren “niak” hogeita bost urte dituenen, bere ametsetako damaren bila hasiko da.

Aipatutako damak hamabost urte (15) besterik ez bazituen, existentzia berrian ere, abentura horren “nia” adin jakin horretan hasiko da bere maitearen bila.

Argi ulertu beharra dago, bikotea osatzen duten bi “niek”, modu telepatikoan bilatuko dutela elkar, eta berriz ere, aurreko existentzian izandako maitasun-historia berbera errepikatzeko elkartzen direla.

Aurreko existentzian etsai amorratuak izan ziren bi pertsonak, berriz ere, elkar bilatuko dute existentzia berrian, euren tragedia adin berean errepikatzeko.

Bi pertsonak aurreko existentzian berrogei urterekin (40) funts-ondasunengatik istiluak izan bazituzten, existentzia berrian, adin berean, elkar bilatuko dute modu telepatikoan, gauza bera errepikatzeko.

Gutariko bakoitzaren barnean konpromisoz betetako jende asko bizi da; hori ukaezina da.

Lapur batek, hainbat delitu-konpromiso dituen lapur-zulo bat darama bere barnean. Hiltzaileak, hiltzaile “klub” bat darama bere barnean, eta lizunak, bere psikearen barnean, “prostituzio-etxe” bat darama.

Larriena hauxe da: adimenak ez daki bere barnean halako “niak” edo jendea dagoenik, eta halabeharrez betetzen diren konpromisoak daudenik.

Gure barnean bizi diren “nien” konpromiso hauek guztiak, gure arrazoinamendutik at gertatzen dira.

Ezagutzen ez ditugun gertakariak dira, gertatzen zaizkigun gauzak, subkontzientean eta inkontzientean prozesatzen diren gertaerak dira.

Arrazoi osoz dena gertatu egiten zaigula esan zaigu, euria egiten duenean edo trumoia jotzen duenean bezalaxe.

Egiten ote dugun irudipena dugu, baina ez dugu ezer egiten, gertatu egiten zaigu; hau saihestezina, mekanikoa da.

Gure nortasuna hainbat jende (ni) desberdinen baliabidea besterik ez da, eta horren bitartez, jende horietako bakoitzak (niek) bere konpromisoak betetzen ditu.

Gure ezagutza bidezko gaitasunetik at gauza asko gertatzen dira; zoritxarrez, gure arrazoi eskasetik at gertatzen dena ez dugu ezagutzen.

Jakituntzat dugu geure burua, benetan, ez dakigunik ere ez dakigunean. Existentziaren itsasoko olatu haserretuek garamatzaten enbor ziztrin batzuk gara.

Zorigaitz honetatik, oharkabetasun honetatik, aurkitzen

garen egoera tamalgarritik ateratzea, geure baitan hilda soilik da posible.

Nola esna gintezke aurrez hil gabe? *Heriotzarekin bakarrik dator berria!* Hazia hiltzen ez bada landarea ez da jaioko.

Benetan esnatzen denak, arrazoi honengatik, bere kontzientiaren objetibotasun osoa, benetako iluminazioa, zoriontasuna lortzen ditu.

Haurren auto-kontzientzia

Ehuneko laurogeita hamazazpiko subkontzientzia eta ehuneko hiruko kontzientzia dugula adierazi digute oso modu jakintsuan.

Bene-benetan eta itzulingururik gabe hitz eginda, hauxe esango dugu: gure baitan daramagun Esentziaren ehuneko laurogeita hamazazpi “nietan” dago kateatuta, txertatuta, sartuta; “ni” horien guztien multzoak “neure burua” osatzen dute.

Zalantzarik gabe, ni bakoitzean preso dagoen Esentzia edo Kontzientzia mugatuta dagoenez, muga horien arabera azaltzen da.

Desegindako edozein nik Kontzientiaren portzentaje zehatz bat uzten du libre. Esentzia edo Kontzientiaren burujabetza edota askatzea ezinezkoa izango litzateke ni bakoitza desegin ezean.

Zenbat eta “ni” gehiago desegin, orduan eta handiagoa izango da norberaren kontzientzia. Zenbat eta “ni” gu-

txiago desegin, orduan eta txikiagoa esna daukagun Kontzientzia portzentajea.

“Nia” deuseztatuz bakarrik da posible Kontzientzia esnatzea, norbere baitan hilda, orain eta hemen.

Zalantzarik gabe, Esentzia edo Kontzientzia geure baitan daramatzagun “nien” artean zanpatuta dagoen bitartean, lo dago, subkontziente egoeran.

Premiazkoa da Subkontzientea Kontziente bihurtzea, eta hori, “niak” suntsituta bakarrik da posible, geure baitan hilda.

Ezinezkoa da esnatzea, aurrez geure baitan hil ezean. Hil aurretik esnatu nahi dutenek, ez daukate adierazten duten horren benetako esperientziarik, ezbairik gabe bide okerretik doaz.

Haur jaioberriak zoragarriak dira, auto-kontzientzia osoa dute; erabat esna daude.

Esentzia, berriz ere, haur jaioberriaren gorputzaren barruan sartuta dago, eta horrek ematen dio haurrari bere edertasuna.

Ez dugu esan nahi Esentzia edo Kontzientiaren ehuneko ehun haur jaioberriaren barruan berriz sartuta dagoenik, baina bai behintzat, normalean “niek” preso hartzen ez duten gainerako ehuneko hirua.

Hala eta guztiz ere, haur jaioberrien gorputzean berriz

sartu den Esentzia askearen portzentaje horrek, norbere buruaren kontzientzia osoa, gogamen-argitasuna, eta abar ematen die.

Helduek jaioberriari errukiz begiratzen diote, haurra inkontzientea delakoan daude, baina zoritxarrez oker daude.

Jaioberriak den bezalakoa ikusten du heldua: inkontzientea, krudela, zitala, eta abar.

Jaioberriaren “niak” joan-etorrian ibiltzen dira, sehas-karen inguruan bueltaka, gorputz berrian sartu nahiko lukete, baina jaioberriak artean nortasuna egituratua ez duenez, gorputz berrian sartzeko eginahalak egin arren, ezinezkoa izaten dute.

Batzuetan, haurrak izutu egiten dira sehaskara hurbiltzen diren fantasma edo “ni” horiek ikusten dituztenean, eta orduan garrasi egiten dute, negar egiten dute, baina helduek ez dute ulertzen, eta haurra gaixorik, go-seak edo egarriak dagoela uste izaten dute; halakoxea da eta helduen inkontzientzia.

Nortasun berria eratu ahala, aurreko existentzietatik datozen “niak” gorputz berrian sartzten dira poliki-poliki.

“Ni” guztiak berriz ere gorputzean sartu direnean, bereizten gaituen barneko zatarkeria izugarri horrekin azaltzen gara munduan; orduan, somnanbulu ibiltzen gara nonahi; beti inkontziente, beti zital.

Hiltzen garenean, hiru gauza joaten dira hilobira:

1. Gorputz fisikoa.
2. Eter-gorputza
3. Nortasuna.

Gorputz fisikoa desegin ahala, eter-gorputza ere, fantasma bezala, hilobi aurrean desegin egiten da poliki-poliki.

Nortasuna, subkontzientea edo azpikontzientea da, nahi duen aldiro sartzen eta irteten da hilobitik, atsekabetuek loreak eramaten dizkiotenean poztu egiten da, bere familiakoak maite ditu, eta poliki-poliki desegin egiten da, hauts kosmiko bihurtu arte.

Hilobitik harantz jarraitzen duena “egoa”, ni neu, “ni pluralizatua” da, Esentzia, Kontzientzia preso daukaten deabru mordoa. Esentzia, Kontzientzia, bere garaian itzuli egingo da, berriz beste gorputz batera itzuliko da.

Umearen nortasun berria egituratzean, tamalgarria da “niak” ere berriz gorputzean sartzea.

Zergalaria eta fariseua

Bizitzaren hainbat zirkunstantziari buruz hausnartuz gero, euskarri ditugun oinarriak benetan ulertzea me-rezi du.

Pertsona baten euskarria bere gizarte-maila da, beste batena dirua, beste harena ospea, beste honena bere iragana, beste horrena halako edo bestelako titulu, etab., etab., etab.

Bitxiena zera da, denok, izan aberatsa edo eskalea, har-rokeriaz eta handikeriaz beterik egon arren, elkarren beharra dugula, eta elkarren menpe bizi garela.

Pentsa dezagun une batez ken diezaguketenez. Zer ger-tatuko litzaiguke iraultza odoltsu batean? Zertan gera-tuko lirateke gure euskarri diren oinarriak? Koitadu halakoak, indartsutzat dugu gure burua, eta ikaragarri ahulak gara!

Egia esan, benetako Zoriontasuna³ nahi badugu, euska-

3 Zoriontasuna: Maiuskulaz, Bibliaren Bienaventuranza

rri dugun oinarria bere egiten duen “nia” ezabatu egin behar dugu.

Halako “niak” jendea gutxiesten du, mundu guztia baino hobea sentitzen da, denean perfektuago, aberatsago, bizkorrago, bizitzan jakitunago, etab.

Jesus Kabir Handiaren parabola aipatzea oso egokia da orain, otoitz egiten zuten bi gizonei buruzkoa. Euren burua zuzentzat jotzen zuten eta besteak gutxiesten zituzten batzuei esan ziena.

Kristo Jesusek esan zuen: *Bi gizon tenplura igo ziren otoitz egitera; bata fariseua eta bestea zergalaria. Fariseuak, zutik, honela ziharduen otoitzean bere baitan: “Ene Jainkoa, eskerrak zuri besteak bezalakoa ez naizelako: lapur, gaizkile edota adulteriogile; ez eta horrako zergalari hori bezalakoa ere. Astean bi bider egiten dut barau, eta ondasun guztien hamarrenak ordaintzen ditut”. Zergalaria, berriz, urruti gelditurik, ez zen begiak lurretik altxatzera ere ausartzen, baizik eta bular-joka ari zen esanez: “Ene Jainkoa, erruki zaitez bekatari honetaz”. Benetan diotsuet, azkenengo hau Jainkoarekin bakean itzuli zela etxera; fariseua, berriz, ez. Zeren eta bere burua goratzen duena beheratu egingo baitu Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena, goratu”. (Lukas XVIII, 10-14).*

Gutako bakoitzaren ezereztasunaz konturatu eta bizi dugun miseria jabetzen hastea erabat ezinezkoa izan da, besteak baino “gehiago” garelako ustea gudan

badago. Adibideak: Ni beste hura baino zintzoagoa naiz, honelako baino jakitunagoa, halako baino bertutetsuagoa, aberatsagoa, bizitzaren gauzetan adituagoa, nire eginbeharretan konplituagoa, etab., etab., etab.

“Aberats” bagara, “gehiago” garelako ustea badugu, ez da posible orratz baten zulotik pasatzea.

“Ganbelu bat orratz baten zulotik pasatzea, aberats bat Jainkoaren erreinuan sartzea baino errazagoa da”.

Nire eskola hoberena dela, eta lagunarenak ez duela balio diogunean; nire Erlijioa bakarra eta benetakoa dela, eta gainontzekoak faltsu eta maltzurak direla diogunean; halakoren emaztea ezin txarragoa dela, eta nirea santu hutsa dela diogunean; nire lagun Roberto mozkorra dela, eta ni oso gizon zentzuduna eta abstemioa, etab., etab., etab., honek sentiarazten gaitu aberats; arrazoi honengatik denok gara Bibliako parabolako “ganbeluak” lan esoterikoari dagokionez.

Euskarri ditugun oinarriak garbi ezagutzeko helburuarekin unez uneko barne behaketa premiazkoa da.

Norbera une jakin batean gehien mintzen duenez jabetzen denean, halako edo honakoagatik egin zioten minaz ohartzten denean, orduan jabetzen da euskarri dituen oinarri psikologikoez.

Oinarri horiek osatzen dute Kristau Ebanjelioaren arabera “*hondarra, zeinaren gainean eraiki zuen bere etxea*”.

Beharrezkoa da honakoaz arreta handiz oharra idaztea: beste batzuk baino gehiago sentituta, nola eta noiz mesprexatu dituzun, behar bada, tituluagatik, edo gizarte-posizioagatik, edo eskuratutako esperientziagatik, diruagatik, edota abarregatik.

Aberats sentitzea larria da, halako edo bestelako arazoirengatik, honako edo halako baino gehiago sentitzea. Horrelako jendea ezin da Zeruetako Erreinuan sartu.

Ona da pozik sentiarazten gaituenaz konturatzea, zerk asebetetzen duen gure handikeria; honek, euskarri ditugun oinarriak erakutsiko dizkigu.

Hala ere, halako behaketa mota batek ez du arazo teoriko huts bat izan behar, praktikoak izan behar dugu, eta arretaz, modu zuzenean behatu behar dugu geure burua, unez une.

Norbera bere miseria eta ezereztasuna ulertzen hasten denean, handinahikeriak baztertzen dituenen, hainbeste titulu, ohore eta hurkoarekiko ditugun nagusitasun hutsalen ergelkeriaz konturatzen denean, dagoeneko aldatzen hasi den seinale argia da.

Pertsona batek ezin du bere burua aldatu “nire etxea”, “nire dirua”, “nire jabetzak”, “nire lanpostua”, “nire bertutea”, “nire gaitasun intelektuala”, “nire gaitasun artistikoa”, “nire ezagutza”, “nire ospea”, etab., etab., etab., dion horri gogor heltzen badio.

Ezer ez garelara, eta gure barne miseria onartzea galaraz-

teko nahikotxo da “neureari”, “niari” atxikitzea.

Sutea edo itsasontzi bat hondoratu dela ikustean, ikuskizun horrekin harritu egiten da bat; orduan jendeak, etsita, gauza irrigarriak bereganatzen ditu askotan; garrantzirik gabeko gauzak.

Koitadu halakoak!, gauza horiek direlakoan daude, txorakerietan oinarritzen dira, batere garrantzirik ez duen horri lotuta daude.

Euren burua kanpoko gauzen bitartez sentitzea, horietan oinarritzea, erabateko egoera inkontzientean egotearen parekoa da.

SAT⁴ sentimendua (Benetako Izakia), gure barruan daramatzagun “ni” horiek guztiak deseginez soilik da posible; horren aurretik, delako sentimendu hori guztiz ezinezkoa da.

Zoritxarrez, “niaren” gurtzaileek ez dute hau onartzen; eurek Jainkotzat daukate euren burua; Tarsoko Pablok hauxe zioen: “Aintzazko Gorputzen” jabe direla pentsatzen dute; “nia” jainkotiarrak dela uste dute, eta ez dago zentzugabekeria hori burutik kenduko dienik.

Batek ez daki zer egin jende horrekin, azalpenak eman arren ez dute ulertzen; euren etxea hondarraren gainean eraiki zuten, eta hondar hauei tinko atxikita daude beti; euren dogmetan sartuta beti, euren kapritxo-

4 SAT: Hasiera absolutoa, munduaren kreaioaren aurrekoa, ezezaguna, Jainkoen aurrekoa.

tan, euren ergelkerietan.

Pertsona horiek euren burua serio behatuko balute, euren kabuz egiaztatuko lukete ugaritasunaren doktrina; gure barruan bizi diren pertsona edo “nien” ugaritasun hori guztia aurkituko lukete euren barruan.

Nola senti dezakegu egiazki gugan geure benetako Izaikia, “ni” horiek gure ordeztzen eta pentsatzen ari direnean?

Trajedia honen guztiaren gauzarik larriena zera da: norberak pentsatzen ari dela pentsatzen du, sentitzen ari dela sentitzen du, baina benetan, une jakin batean, gure buru gogaituarekin pentsatzen ari dena, eta gure bihotz minduarekin sentitzen ari dena beste bat da.

Zorigaiztokoak gu!, zenbaitetan, maitatzen ari garelakoan, beste bat da, norberaren barnean, lizunkeriaz beteta bihotzaren gunea erabiltzen ari dena.

Zorigaiztoko hutsak gara, maitasuna animalia-grinarekin nahasten dugu!, eta halere norberaren barnean, gure nortasunaren barruan, beste bat da modu horretan nahasten dena.

Denok pentsatzen dugu Bibliako fariseuaren parabolako hitz haiek inoiz ez genituzkeela esango: *“Jauna, eskerrak ematen dizkizut gainontzeko gizonak bezalakoak ez naizelako”, etab., etab.*

Hala ere, eta sinesgaitza badirudi ere, horrela jokatzeko

dugu egunero. Haragi saltzaileak azokan honela dio: *“Ni ez naiz gainontzeko harakinak bezalakoa, haragi txarra saldu eta jendea esplotatzen duena”*.

Oihal saltzaileak dendan honela dio: “Ni ez naiz neurtzean lapurru, eta aberastu diren merkatariak bezalakoa”.

Esne saltzaileak honela baieztatzen du: “Ni ez naiz esnari ura eransten dioten saltzaileak bezalakoa. Zintzoa izatea gustatzen zait”.

Etxekoandreak bisitan doanean honela dio: “Ni ez naiz beste gizonekin dabilen halako bezalakoa, Jainkoari esker, pertsona zuzena naiz, eta nire senarrari leial natzaio”.

Ondorioa: gainontzekoak gaiztoak, bidegabekoak, adulteriogileak, lapurrak eta maltzurak dira, eta gutariko bakoitza ardi otzana, “txokolatezko saindutxo” bat, elizaren batean urrezko umetxo bat bezala edukitzeko modukoa.

Bai ergelak garena! Besteak egiten ikusten ditugun txorakeria eta gaiztakeria hauek guztiak inoiz ez ditugula egiten maiz pentsatzen dugu, eta horregatik, pertsona apartak garella ondorioztatzen dugu. Zoritxarrez, ez ditugu egiten ditugun txorakeria eta doilorkeriak ikusten.

Badira bizitzan une bitxiak non gogamena, inongo ardurarik gabe, lasai dagoena. Gogamena pausatuta dagoenean, gogamena isilik dagoenean, orduan berria

dena etortzen da.

Istant horietan euskarri ditugun oinarriak, zimenduak ikustea posible da.

Gogamena barne-atseden sakonean dagoela, bizitzaren hondar horren errealitate gordina egiazta dezakegu geure kabuz, hondar horren gainean eraiki dugu gure etxea. (Ikus Mateo 7- 24-25-26-27-28-29 bertsetak; bi zimenduei buruzko parabola).

Borondatea

“Lan Nagusia”, orenen gainetik, norbere kabuz gizakia sortzea da, lan kontziente eta borondatezko pairamene-
nen bidez.

“Lan Nagusia” norbere buruaren barne-konkista da, Jainkoaren baitan lortutako benetako askatasunaren konkista.

Gure barnean bizi diren “ni” horiek guztiak ezabatzeko premia larria daukagu, geroraezina, benetan Borondatearen emantzipazioa nahi badugu behintzat.

Nicolás Flamel eta Raimundo Lluliok, biak behartsuak, beraien borondatea askatu zuten, eta harritzeko moduko hainbat mirari psikologiko burutu zituzten.

Agripa ez zen inoiz “Lan Nagusiaren” lehenengo zatira baino iritsi, eta modu penagarrian hil zen bere “niak” ezabatzeko borrokan, bere buruaren jabe egin eta bere askatasuna finkatzeko asmotan.

Borondatearen emantzipazio perfektuak, Sua, Aireak, Ura eta Lurraren menperatze osoa ahalbidetzen dizkio jakintsuari.

Psikologia garaikidearen ikasle askori, borondate emantzipatuaren botere subiranoari buruz goiko le-
rroetan adierazitakoa, neurritz gainekoa irudituko zaio; hala ere, Bibliak gauza miragarriak esaten ditu Moisesi buruz.

Filonen arabera, Nilo ibaiertzeko Faraoiaren lurretako Iniziatua zen Moises, Osirisen apaiza, Faraoiaren le-
hengusua, ISIS, Ama Jainkoaren, eta sekretuan dagoen Osiris gure Aitaren zutabe artean hezia.

Moises, Abraham Patriarkaren, Kaldeatar Mago han-
diaren, eta Isaac txit agurgarriaren ondorengoa zen.

Moisesek, Borondatearen botere elektrikoa askatu
zuen gizonak, mirarien dohaina du; hau Jainkotiarrek
eta gizakiek badakite. Hala dago idatzia.

Hebrear buruzagi horri buruz Eskritura Santuek dio-
ten guztia benetan aparta da, miragarria.

Moisesek bere makila suge bihurtu zuen, bere eskue-
tako bat legenardun baten esku bihurtu zuen, gero ber-
piztu egin zuen.

Sutan zegoen sasi haren probak argi utzi zuen bere bo-
terea, jendeak ulertu egin zuen, belaunikatu eta ahus-
pez jarri zen.

Moisesek Haga Magikoa erabili zuen, Bizitzaren eta Heriotzaren Misterio Handietan, Iniziatuaren apaizboterearen ikurra dena.

Faraoiaren aurrean, Moisesek Niloko ura odol bihurtu zuen, arrainak hil egin ziren, ibai sakratua kutsatuta geratu zen, egiptoarrek ezin zuten bertatik edan, eta Niloko ureztaketa sistemek odola isurtzen zuten soroe-tara.

Moisesek gehiago egin zuen; neurritz kanpoko milioika igel agertzea lortu zuen, izugarri handiak, higuin-garriak, ibaitik irten eta etxeetan indarrez sartu zirenak. Gero, Borondate aske eta burujabea adierazten zuen bere keinu baten bidez, igel beldurgarri haiek desager-tu egin ziren.

Baina Faraoiak israelitak aske utzi ez zituenenez, Moisesek mirari berriak egin zituen: lurra zikinkeriaz estali zuen, euli nazkagarri eta zikin mordoa sorrarazi zituen, gero bazterrean utzi ahal izan zituenak.

Izugarritzko izurritea eragin zuen, eta artalde guztiak -judutarrenak izan ezik - hil egin ziren.

Labetik kedarra hartuta - Eskritura Santuek hala diote - airera bota zuen, eta, egiptoarren gainera erorita, pus-tulak eta ultzerak eragin zizkien.

Bere makila-magiko famatua altxatuta, modu zakarrean suntsitu eta hil egiten zuen kazkabarra botarazi zuen

Moisesek. Ondoren gar-itxurako tximista leherrarazi zuen, trumoi beldurgarriak burrunba egin eta ikaragarriko euriak egin zituen, gero keinu bat eginez barealdia bueltatu zuen.

Hala eta guztiz ere, Faraoiak irmo jarraitzen zuen. Moisesek, bere haga magikoa indar handiz kolpatuz, sorginkeria balitz bezala oti-lainoak sorrarazi zituen, gero ilunpea etorri zen. Hagaz beste kolpe bat eman, eta guztia lehengora itzuli zen.

Aski ezaguna da Bibliako Itun Zaharreko Drama haren guztiaren bukaera: Jehovak esku hartu zuen, egiptoarren maiorazko guztiak hilarazi zituen, eta faraoiak hebrearrei joaten uztea beste erremediorik ez zuen izan.

Geroago, Moises bere haga magikoaz baliatu zen Itsaso Gorriko urak arrakalatu, eta hankarik busti gabe zeharkatzeko.

Soldadu egiptoarrak israeliten atzetik lasterka abiatu zirenean, Moisesek keinu batez, urak berriz ere bere onera ekarrarazi zituen, eta hauek atzetik zetozenak irentsi zituzten.

Ezbairik gabe, sasi-okultista askok hau guztia irakurri ondoren, gauza bera egin nahiko lukete, Moisesen botere berberak izan nahiko lituzkete, baina, hau ezinezkoa baino ezinezkoagoa da, Borondatea, gure psikearen atzeko alde ezberdinetan ditugun “nietako” bakoitzean kateatuta baldin badago.

Esentzia, “ni neu” barruan preso, Aladinoren lanparako Jainua da, askatasun gogoz... Jainu honek, aske, mirariak egin ditzake.

Esentzia “Borondate-Kontzientzia” da, zoritxarrez geure mugez araberakoa da bere adierazpena.

Borondatea askatzen denean, orduan Borondate Unibertsalarekin nahasten da, edota honekin integratuta funtzionatzen du, hau dela eta burujabe egiten da.

Norbanakoaren Borondateak Moisesen mirari guztiak egin ditzake, Borondate Unibertsalarekin bat eginda.

Hiru ekintza mota daude:

- a. Istripu Legeari dagozkienak.
- b. Errepikapen-Legearenak direnak, existentzia bakoitzean beti errepikatzen diren ekintzak.
- c. Borondate Kontzienteak, nahita eragindako ekintzak.

Eztabaidarik gabe, bere baitan “nia” hilda, bere Borondatea askatu duen jendeak, soilik, burutu ahal izango ditu bere erabakimen asketik jaiotako ekintza berriak.

Gizateriaren ekintza arruntak eta ohikoak, Errepikapen Legearen edota istripu mekanikoen emaitza hutsak izaten dira beti.

Benetan Borondate askea duenak zirkunstantzia berriak sorraraz ditzake; bere Borondatea “ni anitzetan”

kateatuta duena, zirkunstantzien biktima da.

Bibliaren orrialde guztietan Goi-Magia, Igarle, Profezia, Mirari, Itxuraldaketa, eta hildakoen Berpizkunde erakustaldi zoragarria agertzen da, bai intsuflazio, bai esku-ipintze edo sudurra jaiotzen den tokira begirada finko mantenduz, etab., etab., etab.

Ugari dira Biblian masajea, olio santua, pase magnetikoak, inoren pentsamenduak iragartzea, garraiatzeak, agerraldiak, zerutik etorritako hitzak, etab., etab., Borondate Kontziente aske, emantzipatu, subiranoaren benetako mirariak.

Sorginak? Aztiak? Mago Beltzak?, ugari dira, belar txarra bezalaxe; baina horiek ez dira Santuak, ez Profetak, ezta Ermandade Zuriko Kideak ere.

Inor ezin izango litzateke “Benetako Argialdira” iritsi, ezta Borondate-Kontzientearen Apaizgo Absolutuan jardun, aurrez bere baitan errotik hil ezean, orain eta hemen.

Jende askok maiz idazten digu Argialdirik ez duela kezaka, botereak eskatuz, Mago bihurtzeko giltzarria exijituz, etab., etab., etab., baina inoiz ez dira interesatzen bere burua behatzeaz, bere burua ezagutzeaz, agregatu psikiko horiek ezabatzeaz; alegia, Borondatea, Esentzia preso daukaten “ni” horiek ezabatzeaz.

Jakina, horrelako pertsonak porrotera kondenatuak

daude. Santuen ahalmenak irrikatzen dituen jendea da, baina inola ere bere baitan hiltzeko prest ez dagoena.

Akatsak ezabatzea zerbait magikoa da, berez zoragarria, norbere buruaren behaketa psikologiko zorrotza eskatzen duena.

Borondatearen botere zoragarria erabat askatzen denean, botereak erabiltzea posible da.

Zoritxarrez, jendeak borondatea “ni” bakoitzean preso daukanez, jakina, berau, bere mugen arabera adierazten diren borondate askotan dago zatituta.

Hori dela eta, ulargarria da “ni” bakoitzak bere borondate inkontzientea, partikularra izatea.

“Ni” ezberdinetan preso dauden borondate kontaezinen elkarrekin talka egiten dute sarritan, eta horregatik, indargabe, ahul, zorigaitzoko, zirkunstantzien biktima, ezgai egiten gaituzte.

Burua moztea

Norbere baitako lana burutzen dugun heinean, gero eta gehiago ulertzen dugu, hain gogaikarri egiten gaituen hori guztia, gure barne-izatek erabat ezabatzeko beharra dugula.

Bizitzako zirkunstantzia okerrenak, egokiera larrienak, ekintza zailenak, beti dira zoragarriak norbere buruaren barne-barnekoaz jabetzeko.

Momentu susmagaitz, larri horietan, eta gutxien espero dugunean, azaleratzen dira beti “Ni” ezkutukoena. Adi baldin bagaude, zalantzarik gabe geure burua eza-gutu egiten dugu.

Bizitzako garairik lasaienak dira, hain zuzen ere, norberaren baitako lana egiten gutxien laguntzen dutenak.

Bizitzan korapilatsuegiak diren momentuetan, gertakizunekin erraz identifikatzeko, eta norbere barnearekin ahazteko joera nabarmena dugu; une horietan, inora ez garamatzaten tontakeriak egiten ditugu. Adi egongo

bagina, momentu horietan burua galdu ordez, norbere baitaz gogoratuko bagina, harriduraz, inoiz bazirela susmorik ere izan ez dugun zenbait “niez” jabetuko ginateke.

Norbere buruaren baitako behaketarako zentzumena atrofiatuta du gizaki orok; seriooki lan eginez, unezune norbere burua behatuz, poliki-poliki, zentzumen hori garatu egingo da.

Etengabeko erabileraren bidez, norbere buruaren behaketarako zentzumena garatu ahala, gero eta gaitasun handiagoa izango dugu inoiz ezagutu ere egin ez ditugun “niez” modu zuzenean jabetzeko. Norbere buruaren baitako behaketa-zentzumenaren aurrean, geure barnean bizi diren “niek” honelako edo halako figurak hartzen dituzte isilpean, pertsonifikatzen duten akatsarekin bat egiten dutenak. Zalantzarik gabe, “ni” hauetako bakoitzaren itxurak, bere kutsu psikologiko berezia dauka. Kutsu honen bitartez, senez, ni bakoitzaren barne-barneko izaera eta dagokion akatsa atzematen, harrapatzen, atzitzen dugu.

Hasieran, esoteristak ez daki nondik hasi, norberaren baitako lana egiteko beharra sentitzen du, baina erabat galduta sentitzen da.

Momentu kritikoak, egoera desatseginenak, unerik gogorrenak aprobetxatuz, adi baldin bagaude, gure akats nabarmenez, lehenbailehen ezabatu behar ditugun “niez” jabetuko gara.

Batzuetan, amorrua, buruzalekeria, edota lizunkeria sentitu dugun zorigaiztoko segundoa lantzen has gaitzke, etab., etab., etab.

Beharrezkoa da, batez ere, gure eguneroko egoera psikologikoak gogoan hartzea, benetan behin betiko aldaketa nahi baldin badugu.

Oheratu baino lehen, egunean zehar gertatu diren gertakariak aztertzea komeni da, egokiera deserosoak, Aristofanesen barre-algara zaratatsua, eta Sokratesen irribarre sotila.

Baliteke algara baten bidez norbait mindu izana, bali-teke norbait gaixotu izana irribarre edota lekuz kanpoko begirada baten bidez.

Gogora dezagun: esoterismo garbian, ona bere lekuan dagoen guztia da, txarra, berriz, lekuz kanpo dagoen guztia da.

Ura, bere lekuan ona da, baina etxea urak hartuko balu, kalteak eragingo lituzke, txarra eta kaltegarria izango litzateke.

Sua sukaldean eta bere lekuan, probetxugarria izateaz gain ona da; bere lekutik kanpo, egongelako altzariak errez gero, txarra eta kaltegarria izango litzateke.

Edozein bertute, oso santua bada ere, bere lekuan ona da, bere lekutik kanpo, ordea, txarra eta kaltegarria da. Bertuteekin besteei kalte egin diezaiekegu. Ezinbestekoa da bertuteak dagozkien lekuan jartzea.

Zer esango zenuke, Jaunaren hitza prostituzio-etxe batean predikatzen ari den apaizari buruz? Zer esango zenuke, bere emaztea eta alabak bortxatzeko asmoa duten lapur-taldea bedeinkatzen ari den gizon otzan eta toleranteari buruz? Zer esango zenuke muturrera eramandako tolerantzia horri buruz? Zer pentsatuko zenukete gizon baten karitatezko jokaerari buruz, bere etxera jatekoa eraman ordez, dirua bizio-eskaleen artean banatuko balu? Zer iritzi izango zenukete, une jakin batean, hiltzaile bati labana utzi dion gizon lagunkoiari buruz?

Irakurle maitea, gogoratu delitua bertsoaren kadentzia artean ere ezkutatzen dela. Gaiztoengan bertute asko dago, eta gaiztakeria asko dago bertutetsuengan.

Sinestezina dirudien arren, otoitzaren barnean ere ezkutatzen da delitua.

Delitua santuz mozorrotzen da, bertuterik onenak erabiltzen ditu, martiria balitz bezala agertzen da, eta tenplu sakratuetan ere meza ematen du.

Norbere buruaren barne behaketaren zentzumena, etengabeko erabileraren bidez, gugan garatzen den neurrian, geure izaera indibidualaren funtsezko oinarri diren “ni” horiek guztiak ikusi ahal izango ditugu; nahiz odolbizia edo urduria izan, zein patxadatsua ala suminkorra izan.

Nahiz eta zuk ez sinistu, irakurle maitea, dugun izaera-

ren atzean, gure psikearen sakon-sakonean, deabruzko egite higuingarrienak ezkututzen dira.

Horrelako egiteak ikustea, geure kontzientzia kateatuta daukaten infernuko munstrokeria horiek behatzea, norbere buruaren barne-behaketaren etengabeko garapenaren bidez egiten da posible.

Harik eta gizakiak infernuko egite hauek, norberaren aberrazio hauek ezabatu arte, ezbairik gabe, sakonean, barren-barrenean, existitu beharko ez lukeen zerbait izaten jarraituko du, itxuragabea, higuingarria.

Honen guztiaren gauzarik larriena hauxe da: higuingarria ez da bere higuingarriaz konturatzen, bere burua eder, justu, pertsona ontzat dauka, eta beste guztien onespenez ezaz kexu da, bere kideen esker txarraz penatzen da, ez dutela ulertzen esaten du, zor diotela esanez negar egiten du, gaizki ordaindu diotela, etab., etab., etab.

Norbere buruaren barne behaketaren zentzumenak geure kabuz, eta modu zuzenean, lan sekretua egiaztatzen laguntzen digu. Lan honen bitartez, denbora jakin batean, halako edo bestelako ni ezabatzen arituko gara (halako edo bestelako akats psikologiko), ziur asko kondizio zailtan, eta gutxien uste dugunean jabetuko gara.

Zuk, bizitzan inoiz pentsatu al duzu gehien ala gutxien gustatzen zaizunari buruz? Zuk, hausnartu al duzu ekintzaren baliabide sekretuei buruz? Zergatik edu-

ki nahi duzu etxe eder bat? Zergatik eduki nahi duzu azken modeloko kotxea? Zergatik egon nahi duzu beti azken modan? Zergatik irrikatzen duzu gutziatsu ez izatea? Momentu jakin batean zerk mindu zintuen gehien? Atzo zerk harrotu zintuen gehien? Une jakin batean, zergatik sentitu zinen honelako edo halako baino hobea? Zer ordutan sentitu zinen inor baino hobea? Zergatik harropuztu zinen zure garaipenak kontatzean? Ezin izan al zinen isildu beste pertsona ezagun batez marmarrean ari zirenean? Likore kopa kortesiagatik hartu al zenuen? Biziorik ez izan arren erretzea onartu al zenuen, behar bada hezibide kontzeptuagatik edota gizontasunagatik? Elkarriketa hartan zintzoa izan zirela ziur al zaude zu? Eta zeure burua zuritzen duzunean, zeure burua goratzen duzunean, zure garaipenak adierazten dituzunean, eta aurretik besteei esandakoa errepikatuz kontatzen dituzunean, ulertzen al duzu handiustea zarela?

Norbere buruaren barne-behaketaren zentzumenak, ezabatzen ari zaren nia argi eta garbi ikusten laguntzeaz gain, zure barne-lanaren emaitza lazgarri eta zehatzak ere ikusten utziko dizu.

Hasteko, infernuko egite hauek, zoritxarrez ezaugarri dituzun aberrazio psikiko hauek, itsas-sakonean edo lurreko oihanik sakonenean dauden piztiarik beldurgarrienak baino itsusiagoak eta nazkagarriagoak dira; zuen lanean aurrera egin ahala, norbere buruaren barne-behaketaren zentzumenaren bidez, egite hi-

gingarri horiek bolumena galtzen, txikitzen ari direla egiaztatu ahal izango duzue.

Interesgarria da jakitea izugarrikeria horiek tamainaz txikitu ahala, bolumena galdu eta txikiago bihurtu ahala, ederrago egiten direla, poliki-poliki haur-itxura hartzen dutela; azkenean desegin egiten dira, hauts kosmiko bihurtzen dira, orduan preso dagoen Esentzia, askatu, emantzipatu, esnatu egiten da.

Zalantzatik gabe, gogamenak ezin du funtsean inolako akats psikologikorik aldatu; jakina, adimenak akats bat honako edo halako izenez izendatzeko, justifikatzeko, maila batetik bestera pasatzeko, eta abar egiteko aukera izan dezake, baina ezingo luke bere kabuz suntsitu, ezabatu.

Gogamenaz gaindiko suzko-botere baten behar larria daukagu, bere kabuz, honelako edo halako akats psikologiko hauts kosmiko bihurtzeko gai izango den botere baten beharra daukagu.

Zorionez, bada gudan suge-botere hori, erdi aroko alkimistek Stella Maris izen misteriotsua jarri zioten su zoragarri hori, Itsasoko Birjina, Hermes Zientziaren Azoe, Mexiko Aztekarraren Tonantzin, gure berezko Izaki intimoaren adarra, Misterio Nagusien suge sakratuaz sinbolizatzen den gure barneko Ama Jainkoa.

Gure barne-lanaren ondorioz, honelako edo halako akats psikologiko (honelako edo halako ni) behatu eta

ulertu ondoren, norberaren Ama Kosmikoari (gutako bakoitzak berea baitauka) akats hau edo hura, ni hura ezabatzeko, hauts kosmiko bihurtzeko erregu egiten badiogu, ziur egon zaitezkeete berau tamainaz txikitu egingo dela, eta poliki-poliki hauts bihurtuko dela.

Honek guztiak segidako lan sakonak egitea eskatzen du, beti etengabekoak, izan ere, ni bakar bat ere ezin da bat-batean ezabatu. Norbere buruaren barne behaketa-
ren zentzumenak, benetan ezabatu nahi dugun akats higuigarri horrekiko lanean, egin dugun aurrerapen progresiboa ikusi ahal izango du.

Stella Maris, sinestezina badirudi ere, gizakiaren sexu-ahalmenaren seinale astrala da.

Ezbairik gabe, geure barne-psikologian daramatzagun aberrazioak ezabatzeko ahalmen eraginkorra dauka Stella Marisek.

Juan Bataiatzailearen burua mozteak hausnarketara bultzatzen gaitu, inolako aldaketa psikologiko erradikalik ez litzateke posible izango, aurretik burua moztu ezean.

Geure berezko Izaki eratorriak, Tonantzinek, Stella Marisek, gizateria osoarentzat potentzia elektriko ezezaguna denak, eta gure psikearen sakonean ezkutuan dagoenak, nabarmena da, azken ezabapena baino lehen, edozein niri burua mozteko ahalmena duela.

Stella Maris, materia organiko eta ez-organiko orotan latente dagoen filosofoen sua da.

Bulkada psikologikoen su horren ekintza bizia eragin dezakete, eta orduan burua moztea posible gertatzen da.

“Ni” batzuei lan psikologikoaren hasieran mozten zaie burua, beste batzuei erdialdean, eta beste batzuei bukaeran. Stella Marisek, suzko sexu-potentzia izanik, egin beharreko lanaz kontzientzia osoa dauka, eta momentu egokian, une aproposan mozten du burua.

Harik eta akats higuigarri hauek guztiak, haragikeria hauek guztiak, madarikazio hauek guztiak ezabatu arte: lapurreta, bekaizkeria, ezkutuko edota ageriko adulterioa, diruzalekeria edo botere psikikoen nahikeria, eta abar, zurututako hilobiak baino ez gara izango, kanpotik ederrak, baina barrutik ustelkeria nazkagarri beteak. Nahiz eta pertsona ohoretsuak, hitzekoak, zintzoak, adeitsuak, karitatetsuak, gure baitan ederrak, eta abar garela uste izan.

Liburu-erudizioak, sasi-jakituriak, eskritura santuei buruzko informazio osoak, ekialdekoak zein mendebaldekoak izan, iparraldekoak zein hegoaldekoak, sasi-okultismoak, sasi-esoterismoak, ziurtasun osoz ondo dokumentatuak gaudela uste izateak, uste osoko sektakeria zorrotzak, eta abarrek ez dute ezertarako balio, egia esan, ez dakigun hori baino ez baita existitzen funtsean: infernuko egiteak, madarikazioak, munstrokeriak;

hauek aurpegi ederraren atzean, begitarte agurgarriaren atzean, lider sakratuaren jantzi guztiz santuaren azpian, eta abarretan ezkututzen dira.

Geure buruarekin zintzoak izan behar dugu, zer nahi dugun galdetu behar diogu geure buruari. Jakin-min hutsagatik etorri bagara Ikasbide Gnostikora; benetan gure nahia burua moztea ez bada, orduan geure buruari iruzur egiten ari gara, geure ustelkeria defendatzen ari gara, jokabide hipokrita izaten ari gara.

Jakituria esoterikoaren eta okultismoaren eskolarik ohoragarriengan, bere burua benetan auto-errealizatu nahi duten eta oker dauden zintzo asko dago, baina barneko higuigarriak ezabatzen ari ez direnak.

Jende asko dago asmo onen bidez santu izatera iritsi ahal dela uste duena. Ezbairik gabe, geure barruan daramatzagun “ni” horiei buruz gogor lan egiten ez bada, haiek, begirada errukior eta jokaera onaren azpian existitzen jarraituko dute.

Santutasunaren tunika jantzita mozorrotutako gaiztoak garela jakiteko garaia iritsi da; ardi-larrua duten otsoak; gizon prestuaren jantzia duten gizajaleak; gurutze-zeinu sakratuaren atzean ezkutaturiko borroak, etab.

Gure tenplu barruetan, edo argidun eta harmoniadun geletan oso handientsu agertuagatik, geure hurkoek lasai eta ezti ikusten bagaituzte ere, agurgarriak eta apa-

lak garela emanagatik, oraindik ere, infernuko higuin-garri guztiak eta gerretako munstrokeria guztiak gure psikearen sakonean daude.

Psikologia Iraultzailean ageriko bihurtzen da erabateko eraldaketaren beharra, eta berau, geure buruari hiltzerainoko gerra deklaratzu bakarrik da posible, gerra bihozgabea eta gupidarik gabekoa.

Egiazki, guk guztiok ez dugu ezer balio, gutako bakoitza lurraren zorigaitza da, gaitzesgarria den hori.

Zorionez, Juan Bataiatzaileak bide sekretua irakatsi zigun: Psikologikoki Burua Moztuz geure baitan hiltzea.

Grabitate-zentro iraunkorra

Benetako banakotasunik izan ezean, helburuen jarraipena izatea ezinezkoa gertatzen da.

Norbanako psikologikoa ez bada existitzen, gutariko bakoitzean pertsona asko bizi badira, subjektu erantzulerik ez badago, inori helburuen jarraipena eskatzea zentzugabekeria litzateke.

Ondo asko dakigu pertsona baten barruan pertsona asko bizi direla; beraz, gugan ez dago benetan erantzule izateko senik.

Ni jakin batek une batean baieztatzen duenak, ezin du inongo seriotasunik izan, izan ere, beste edozein unetan, beste edozein nik, justu kontrakoa baiezta dezake.

Larriena zera da: jende askok erantzukizun moralaren sena baduela uste du, eta beti pertsona berak direla baieztatuz euren buruak engainatzen dituzte.

Badago jendea beren existentziako edozein unetan ikas-

keta Gnostikoetara datorrena, bihotz-dei indartsua delako nabarmentzen dena, lan esoterikoarekin berotzen dena, eta euren existentzia guztia gai hauei eskaintzea ere zin egiten duena.

Dudarik gabe, horrelako pertsona sutsu bat mirestera ere iristen dira gure mugimenduko anai-arreba guztiak.

Honelako pertsonak, hain sutsu eta guztiz zintzoak entzutean, poz handia sentitu baino ezin dugu egin.

Halere, idilioak ez du asko irauten; pertsonak Gnosia utzi egiten du, bidezkoa edo bidegabekoa den halako edo bestelako arrazoi bat dela medio; orduan norberaren baitako lana utzi egiten du, eta bidegabekeria zuzentzeko, edo bere burua zuritu nahian, beste edozein erakunde mistikotako kide egiten da, eta orain hobeto ari dela pentsatzen du.

Eskolaz, sektaz, erlijioz aldatzea, batetik besterako joan etorri hauek guztiak, gure baitan dauden “ni” ugariak sortzen dituzte, beraien artean nagusitasuna lortzearen, elkarrekin borroka egiten dutelako.

Nolanahi dela ere, ni bakoitzak bere irizpidea, bere gogamena, bere ideiak dituen bezala, ia arrunta da iritziz aldatzea, tximeletak lorez lore ibiltzen diren bezala, etengabe erakundez erakunde, idealez ideal ibiltzea, etab.

Pertsona berez, nien tresna baino ez da, batzuetan ni batek erabiltzen du, eta beste batzuetan, berriz, beste ni batek.

“Ni” mistiko batzuek euren burua engainatzen dute; honako edo halako sekta utzi ondoren, Jainkoak direla uste izatea erabakitzen dute, argi handiputzek bezala distira egiten dute, eta azkenean, desagertu egiten dira.

Badira pertsonak, une batez, lan esoterikora agertzen direnak, eta gero, beste ni batek esku hartzen duenean, ikasketa hauek behin betiko uzten dituzte, eta bizitzak irentsi egiten ditu.

Jakina, bizitzaren aurka borrokatzen ez badugu, honak irentsi egiten gaitu, eta izangai gutxi dira bizitzak irentsi ez ditzan borrokatzen dutenak.

Gure baitan “ni” aniztasun handia dagoenez, ezin da grabitate-zentro iraunkorrik egon.

Pertsona guztiak bere baitan ez auto-errealizatzea ia normala da. Izakiaren barne-barneko auto-errealizazioa lortzeko, gure helburuei jarraipena ematea beharrezkoa dela ondo dakigu, eta grabitate-zentro iraunkorra duen norbait aurkitzea oso zaila denez, orduan barne-barneko auto-errealizazio sakonera iritsiko den pertsona bat aurkitzea oso zaila izatea ez da harritzekoa.

Norbait lan esoterikoarekin gogoberotzea eta gero uztea da normala; norbaitek lana ez uztea eta helmugara iristea da harritzekoa.

Benetan eta egiazki, Eguzkia laborategiko saiakuntza konplexu eta ikaragarri zaila egiten ari dela baieztatzen dugu.

Animalia intelektualaren baitan, modu okerrean gizakia deritzonaren baitan, egoki garatuz gero, eguzki-gizaki bihur daitezkeen haziak daude.

Halere, hazi hauek garatzea ez dela gauza segurua argitzea ez dago sobera, zoritxarrez degeneratzea eta galtzea da normala.

Izatekotan ere, eguzki-gizaki bihurtu behar duten aipaturiko haziek giro egokia behar dute, hazia ingurune antzu batean ez dela ernetzen jakina baita, galdu egiten da.

Gure sexu-guruinetan ezarritako gizakiaren benetako hazia erne ahal izateko, helburuen jarraipena eta gorputz fisiko normala behar dira.

Zientzialariek barne jariakinekin entseguak egiten jarraitzen badute, aipatutako hazien garapenerako edozein aukera gal daiteke.

Sinesgaitza badirudi ere, inurriak antzeko prozesu batetik jada pasa ziren, gure Lur planetaren aspaldiko iragan arkaiko batean.

Erabat harritzen gara inurri jauregi bat aztertzen dugunean. Zalantzarik gabe, edozein inurritegitan ezarritako ordena ikaragarria da.

Zuzeneko esperientzia mistikoaren bidez, kontzientzia esnatu duten Iniziatuek badakite inurriak, munduko historialaririk handienek susmatu ere egiten ez duten

garaietan, izugarri boteretsua izan zen zibilizazio sozialista sortu zuen giza arraza bat izan zirela.

Orduan, familia hartako diktadoreek sekta erlijioso ezberdinak eta erabakimena ezabatu zituzten, horrek guztiak boterea gutxitzen baitzien, eta eurek, seko totalitarioak izan beharra zeukaten.

Gauzak horrela, banakoaren inizatiba eta erlijio-eskubidea ezabaturik, animalia intelektuala inboluzio eta degenerazio bidean amildu zen.

Arestian esandako guztiari esperimentu zientifikoak gehitu zitzaizkion; organo eta guruin transplanteak, hormonekin egindako entseguak, etab., etab., etab. Honen guztiaren ondorioz, gizaki haien morfologia aldatzen hasi zen, eta pixkanaka txikitzen hasi ziren, harik eta gaur egungo inurri bihurtu arte.

Zibilizazio hura guztia, ezarritako ordena sozialarekin erlazionatutako mugimendu horiek guztiak mekanikoak bihurtu ziren, eta gurasoengandik seme-alabengana pasa ziren; gaur egun, aho bete hortz geratzen gara inurritegi bat ikustean, baina euren adimen eza-gatik nahigabetu baino ezin dugu egin.

Norberaren baitako lanik egiten ez badugu, era beldugarrian inboluzionatu eta degeneratu egiten gara.

Eguzkia naturaren laborategian egiten ari den saiakerak, zaila izateaz gain, oso emaitza gutxi eman ditu betetan.

Eguzki-gizakiak sortzea, gutariko bakoitzarengan benetako kooperazioa dagoenean soilik da posible.

Eguzki-gizakia sortzea ez da posible, lehenik gure baitan grabitate-zentro iraunkor bat ezartzen ez badugu.

Nola izan genezake helburu jarraipena, ez badugu gure psikean grabitate-zentroa ezartzen?

Eguzkiak sortutako edozein arrazak, egiazki, sorkuntza honen interesari eta eguzkiaren esperimentuari baliagarri izatea beste helbururik ez du naturan.

Eguzkiak bere saiakeran porrot egiten badu, honelako arraza batenganako interes guztia galtzen du, eta arraza hori hondamendira eta inboluziora kondenatua izaten da.

Lurrean existitu diren arrazetako bakoitzak eguzkiaren esperimenterako balio izan du. Arraza bakoitzarengandik Eguzkiak garaipen batzuk lortu ditu, eta eguzki-gizaki talde txikiak jaso ditu.

Arraza batek bere fruituak eman dituenean, ezarian ezarian desagertu egiten da, edo bortizki, hondamendi handien bitartez hil egiten da.

Eguzki-gizakiaren sorkuntza, norbaitek, ilargiaren indarretatik bereizteko borrokatzen duenean da posible. Gure psikean daramatzagun “ni” horiek guztiak soilik ilargi-motakoak direla ez dago zalantzarik.

Aurrez gugan grabitate-zentro iraunkor bat ezarriko ez bagenu, ilargiaren indarretatik askatzea ez litzateke inolaz ere posible izango.

Nola deusezta genezake ni pluralizatua osorik, helburu jarraipenik ez badugu? Zein modutan izan genezake helburu jarraipena, aurrez gure psikean grabitate-zentro iraunkorrik ezarri ez badugu?

Egungo arrazak ilargiaren eraginetik bereizi ordez, eguzkiaren adimenarekiko interes guztia galdu duenez, zalantzarik gabe, bere burua inboluzio eta degeneraziora kondenatu du.

Eboluzio-mekanikaren bitartez egiazko gizakia sortzea ez da posible. Eboluzioa eta bere ahizpa bikia den inboluzioa, natura guztiaren ardatz mekanikoa osatzen duten bi lege besterik ez direla ondo dakigu. Erabat zehatza den puntu bateraino eboluzionatzen da, eta gero inboluzio prozesua dator; igoera bakoitzaren ondoren jaitsiera bat dator, eta alderantziz.

“Ni” desberdinek kontrolatutako makinak besterik ez gara gu. Naturaren ekonomiari laguntzen diogu, ez daukagu banakotasun zehatzik, nahiz eta sasi-okultista eta sasi-esoteriko askoren uste okerra hori den.

Urgentzia handiz aldatu beharra daukagu, gizakiaren haziek euren fruituak eman ditzaten.

Norberaren barne-lanean benetako helburuen jarraipe-

na izanda, eta erantzukizun moralaren sen osoa izanda soilik bihur gaitezke eguzki-gizaki. Honek zera esan nahi du, gure existentzia osoa, norberaren barne-lan esoterikoari eskaini behar diogula.

Eboluzioaren mekanikaren bidez eguzki-egoerara iristeko itxaropena duten haiek, euren burua engainatzen dute, eta inboluzio-degeneraziora kondentatzen dute euren burua.

Lan esoterikoan ezin gara aldakorrak izan; ideia kas-karinak dituzten horiek, gaur euren psikea lantzen duten horiek, eta bihar bizitzak irents ditzan uzten duten horiek, lan esoterikoa uzteko aitzakiak, justifikazioak bilatzen dituzten horiek degeneratu eta inboluzionatu egingo dute.

Batzuek akatsa atzeratu egiten dute, euren egoera ekonomikoa hobetzen duten bitartean, dena gerorako uzten dute, eguzkiaren saiakerak euren irizpide pertsonalarekin eta proiektu jakinekin zerikusirik ez duela kontuan izan gabe.

Eguzki-gizaki bihurtzea ez da horren erraza, ilargia geure baitan daramagunean (egoa ilargiarena da).

Lurak bi ilargi ditu; hauetan bigarrenak Lilith du ize-na eta ilargi zuria baino pixka bat urrunago dago.

Astronomoek Lilith dilista bat bezala ikusten dute, oso neurri txikikoa baita. Hori da ilargi beltza.

Egoaren indarrik maltzurrenak Lurrera Lilithetik iristen dira, eta gizakiarenak baino baxuagoak diren emaitza psikologiko itzelak sortzen ditu.

Prentsa gorriaren bidegabekeriak, historiako hilketarik beldurgarrienak, hutsegiterik susmagaitzenak, etab., etab., etab., Lilithen uhin bibrakorren ondorio dira.

Ilargiaren eragin bikoitzak, gizakiak bere baitan darman egoaren bitartez adierazten denak, erabateko porrotera eramaten gaitu.

Ilargiak gugan duen indar bikoitzarengandik askatzeko helburuarekin, gure existentzia osoa, norbere baitako lanari emateko premia ikusten ez badugu, ilargiak irentsi egingo gaitu; nolabait esateko, gero eta sakonagoak diren zenbait egoera inkontziente eta azpikontzientetara inboluzionatu, eta degeneratu egingo gara.

Larria zera da: benetako banakotasunik ez dugula; grabitate-zentro iraunkor bat izango bagenu, eguzki-egoera lortu bitartean benetan serio lan egingo genuke.

Gai hauetan horrenbeste aitzakia, horrenbeste ihesbide, horrenbeste erakarpen liluragarri daudenez, lan esoterikoaren premiaz jabetzea ia ezinezkoa egiten da.

Halere, daukagun erabakimen tarte txikia eta lan praktikora bideratutako Ikasbide Gnostikoa, eguzki-saiakerarekin lotura duten gure helburu zintzoetarako oinarri gisa balia ditzakegu.

Adimen kaskarinak ez du hemen esaten ari garena ulertzen, kapitulu hau irakurri eta ondoren ahaztu egiten du; gero beste liburu bat dator, eta beste bat, eta azkenean, zerurako pasaporte saltzen digun, modu baikorrago batean hitz egiten digun, eta beste munduan erosotasuna ziurtatzen digun edozein erakundetako kide egiten bukatzen dugu.

Horrelakoak dira pertsonak, hari ikusezinek kontrolatutako txotxongilo soilak, ideia kaskarinak dituzten, eta helburu jarraipenik ez duten panpina mekanikoak.

Lan esoteriko gnostikoa

Gnosia ikastea, eta norberaren baitako lan serioa egiteko obra honetan ematen ditugun ideia praktikoak erabiltzea premiazkoa da.

Hala eta guztiz ere, halako edo bestelako “nia” ezabatze-ko asmoa edukita ere, ezin izango genuke geure baitako lanik burutu, aurrez behatu ezean.

Norbere buruaren behaketak gure barruan argi izpi bat sar dadin ahalbidetzen du.

Edozein “ni” dela ere, buruan modu batera azaltzen da, bihotzean beste modu batera, eta sexuan beste modu batera.

Une jakin batean harrapatu dugun “nia” behatu beharra daukagu, gure organismoko hiru zentro hauetako bakoitzean ikustea premiazkoa da.

Beste jendearekiko harremanetan, gerra garaian zelataria bezala, adi eta zelatan baldin bagaude, geure buruaz jabetzen gara.

Gogorutzen al zara zein ordutan mindu duten zure handikeria? Zure harrokeria? Zerk atsekabetu zaitu gehien egunean zehar? Zergatik izan duzu atsekabe hori? Zein da bere ezkutuko zergatia? Aztertu hori, behatu burua, bihotza eta sexua.

Bizitza praktikoa eskola zoragarria da; elkarrekiko harremanetan jabetu gaitezke geure baitan daramatzagun “ni” horietaz.

Edozein atsekabek, edozein gertakarik, norbere buruaren barne behaketaren bitartez, “ni” batez jabetzera eramán gaitzake, buruzalekeria dela, bekaizkeria dela, zeloak, amorrua, gutizia, susmo txarra, gezur beltza, lizunkeria, etab., etab., etab.

Besteak ezagutu ahal izateko, lehenengo geure burua ezagutu behar dugu. Premiazkoa dugu besteren ikuspuntua ikusten ikastea.

Besteren lekuan jartzen baldin bagara, beraiei leporatzen dizkiegun akats psikologikoak, guk ere geure baitan sobera ditugula konturatuko gara.

Behar-beharrezkoa da lagun-hurkoa maitatzea; baina ezingo geniituzke besteak maitatu, aurrez, lan esoterikoan, beste pertsonaren lekuan jartzen ikasi ezean.

Lurrean krudelkeria izaten jarraituko dugu, harik eta beste pertsonen lekuan jartzen ikasten dugun arte.

Baina norberak bere burua ikusteko ausardiarik ez

badu, nola jar liteke beste jendearen lekuan?

Zergatik ikusi behar dugu beste pertsonen alde txarra bakarrik?

Ezagutu berri dugun beste pertsona batekiko ezinikusi mekanikoak, lagun hurkoaren lekuan jartzen ez daki-gula adierazten du, ez dugula lagun hurkoa maite, kontzientzia lokartuegia daukagula.

Zer dela eta? Edan egiten ote du? Beha dezagun geure burua... Ziur al gaude gure bertuteaz? Ziur al gaude geure baitan ez daramagula mozkorkeriaren "nia"?

Hobe genuke mozkor bat pailazoarena egiten ikustean hauxe esango bagenu: "hau ni naiz, ze pailazokeriak egiten ari naizen...".

Emakume zintzo eta bertutetsua zara zu, eta hori dela eta, beste dama bat ezin duzu ikusi ere egin, izugarritzko ezinikusia diozu. Zergatik? Zeure buruaz oso ziur al zaude? Zeure baitan lizunkeriaren "nia" ez daukazulakoan al zaude? Bere eskandalu eta haragikeriengatik, izena zikindua duen dama hura gaiztoa dela uste al duzu? Emakume horrengan ikusten dituzun haragikeria eta gaiztakeria zeure baitan ez daudela ziur al zaude?

Hobe zenuke zeure burua barne-barnetik behatu, eta meditazio sakonean, gaitzesten duzun emakume haren lekuan jarriko bazina.

Premiazkoa da lan esoteriko Gnostikoari balioa ema-

tea, ezinbestekoa da ulertu eta aintzat hartzea, benetan erabateko aldaketa bihotzez nahi badugu behintzat.

Behar-beharrezkoa dugu gure lagun hurkoa maitatzea, Gnosia ikastea eta jende guztiari ikasbide hau zabaltzea, bestela berekoikerian eroriko gara.

Norbait norbere buruaren baitako lan esoterikoan aritzen bada, baina ikasbidea besteei ematen ez badie, lagun hurkoarekiko maitasun ezagatik, bere baitako aurrerapenak oso nekez egingo du aurrera.

“Ematen duenak, jaso egiten du, eta zenbat eta gehiago eman, orduan eta gehiago jasoko du, baina ezer ematen ez duenari, daukana ere kendu egingo zaio”. Hori da legea.

Otoitza lanean

Behaketa, Epaiketa eta Exekuzioa dira desegitearen oinarritzko hiru faktoreak. Lehenik behatu egiten da. Bigarrenik epaitu egiten da. Hirugarrenik exekutatu egiten da.

Gerrako espioiak lehenik behatu egiten dira; bigarrenik epaitu egiten dira; hirugarrenik fusilatu egiten dira.

Elkarrekiko harremanetan, geure burua ezagutzen dugu, eta geure buruaren errebelazioa izaten dugu. Elkarbizitzari uko egiten dionak, bere burua ezagutzeari ere uko egiten dio.

Bizitzako edozein gertakariren zergatia, txikikeria iruditu arren, zalantzarik gabe, geure barne-barnean da goen aktore batek, agregatu psikiko batek, “ni” batek eragindakoa da.

Geure buruaren ezagutza, pertzepzioari adi gaudenean da posible, berritasunari adi.

In fraganti harrapatzen dugun “nia”, gure buruan, bihotzean eta sexuan behatu behar dugu arretaz.

Lizunkeriazko edozein “ni”, maitasuna izango balitz bezala ager liteke bihotzean, buruan ideal bat balitz bezala, baina sexuari arreta jarriz gero, beste ezerekin nahasterik ez dagoen nolabaiteko eszitazio morboso bat sentituko genuke.

Edozein “niren” epaiketak behin betikoa izan behar du. Akusatuen aulkian eseri eta errukirik gabe epaitu behar dugu.

Edozein aitzakia, justifikazio, begiramen deuseztatu egin behar dugu, gure psiketik erotik atera nahi dugun “niari” buruz benetan kontziente egitekotan.

Exekuzioa ezberdina da; ezin izango litzateke posible edozein “ni” exekutatzea, aldez aurretik behatu eta epaitu gabe.

Lan psikologikoan otoitza beharrezkoa da deuseztatze-ko. Gogamenaz gaindiko indar bat behar dugu, benetan, halako edo bestelako “ni” desegin nahi badugu behintzat.

Gogamenak inoiz ez lezake bere kabuz inolako “nirik” desegin, hau ukaezina, eztabaidaezina da.

Otoitz egitea Jainkoarekin hitz egitea da. Geure barnebarnean Ama-Jainkoari erregutu behar diogu, benetan “niak” desegin nahi baditugu, behintzat. Bere Ama

maite ez duenak, esker txarreko seme-alabak, porrot egingo du norbere baitako lanean.

Gutako bakoitzak norberaren Ama Jainkoa dauka, partikularra; bera, berez, geure Izakiaren zati bat da, baina deribatua.

Antzinako herri guztiek, geure Izakiaren sakonenean, “Ama-Jainkoa” gurtu zuten. Betierekoaren sorburu femeninoa Isis da, Maria, Tonantzin, Cibeles, Rea, Adonia, Insoberta, etab., etab., etab.

Fisikoki aita eta ama baditugu, gure Izakiaren sakonean ere, sekretuan dagoen gure Aita eta Kundalini, gure Ama Jainkoa, ditugu.

Zenbat Aita Zeruan, hainbat gizaki lurrean. Geure barne-barneko Ama-Jainkoa geure intimitatean, sekretuan dagoen gure Aitaren alde femeninoa da.

Aita eta Ama dira, egiazki, geure barneko Izakiaren goiko bi zati nagusiak. Zalantzarik gabe, Aita eta Ama dira psikologiaren “nitik” haragoko geure Egiatzko Izakia.

Aita bitan banatzen da, eta orduan Amak agindu, zuzendu, hezi egiten du. Amak, norberaren baitako lan jarraitua eginez gero, gure barnean daramatzagun osagai zitalak ezabatu egiten ditu.

Geure baitan erabat hil garenean, osagai zital guztiak ezabatuak izan direnean, lan kontziente eta borondatezko pairamen askoren ondoren, “Aita-Amarekin”

fusionatu egingo gara, eta bat egingo dugu; orduan Jainko izugarri Jainkotiarrak izango gara, onetik eta txarretik harantzago.

Gutako bakoitzaren Ama Jainko indibidualak, bere suzko indarren bidez, hauts kosmiko bihur dezake aurrez behatua eta epaitua izan den “ni” ugari horietako edozein.

Inola ere, ez litzateke beharrezkoa gure baitako Ama Jainkoari otoitz egiteko formula berezirik. Berari hitz egitean oso naturalak eta sinpleak izan behar dugu. Bere amari hitz egiten dion umeak inoiz ez du formula berezirik, bihotzetik ateratzen zaiona esaten du, eta horixe besterik ez.

Ez dago berehala desegiten den “nirik”; gure Ama Jainkoak izugarri lan egin behar du, baita sufritu ere, edozein “ni” suntsitzea lortu aurretik.

Bihur zaitezte barnerakoi, zuzen ezazue zuen otoitza barrurantz, zuen barnean zeuen Andere Jainkotiarraren bila, eta erregu zintzoez hitz egin diezaiokezue. Eskatu, aurrez behatu eta epaitu duzuen “ni” hura, arren, desegin dezan.

Norbere buruaren barne-barneko behaketa zentzume-na garatu ahala, zuen lana poliki-poliki aurreraka doala egiaztatu ahal izango duzue.

Ulermena, bereizketa, beharrezkoak dira; hala ere, benetan “nia” desegin nahi badugu, beste zerbait behar da.

Gogamenak, nahi izanez gero, edozein akats nabarmendu dezake, sail batetik bestera pasa, erakutsi, ezkutatatu, eta abar egin dezake, baina inoiz ezin izango luke funtsean aldatu.

Gogamenaz gaindiko “botere berezi” bat behar da, edozein akats hauts bihurtuko duen suzko botere bat.

Stella Maris, gure Ama Jainkoak dauka botere hori, edozein akats psikologiko birrindu dezake.

Gure Ama Jainkoa, gure barne-barnean bizi da, gorputzetik harantz, afektu eta gogamenetik harantz. Bera, berez, gogamenaz gaindiko gardun botere bat da.

Gutako bakoitzaren Ama Kosmiko indibiduala, Jakinduria, Maitasun eta Indarraren jabe da. Berarengan erabateko perfekzioa dago.

Asmo onak eta asmo hauen etengabeko errepikapenak alferrikakoak dira, ez dute ezertarako balio.

Alferrikakoa izango litzateke honakoa errepikatzea: “ez naiz lizuna izango”; hala eta guztiz ere, gure psikearen sakon-sakonean, haragikeriazko “niek” izaten jarraituko dute.

Alferrikakoa izango litzateke egunero honakoa errepikatzea: “ez naiz gehiago haserretuko”. Gure psikologiaren sakon-sakonean, haserrearen “niek” izaten jarraituko dute.

Alferrikakoa izango litzateke egunero honakoa esatea: “ez naiz gehiago gutziatsua izango”. Gure psikearen zenbait txokotan, gutziaren “niek” izaten jarraituko dute.

Alferrikakoa izango litzateke mundutik urrundu eta komentu batera erretiratzea, edota haitzulo batean bizi izatea; gure baitako “niek” izaten jarraituko dute.

Haitzuloetako zenbait anakoreta, diziplina gogorren bidez, santuen estasira iritsi ziren, eta zeruetara eramanak izan ziren, bertan, gizakiek ulertzea posible ez diren gauzak ikusi eta entzun zituzten; hala ere, beraien baitan “niek” izaten jarraitu zuten.

Ukaezina da, Esentziak “niari” ihes egin diezaioke diziplina zorrotzen bidez, eta estasia bizi dezake, baina zorionaren ondoren, “norberaren buruaren” barnera itzultzen da.

“Nia” desegin gabe estasia bizitzen ohitu direnak, dagoeneko liberazioa lortu dutelakoan daude, bere buruari iruzur egiten diote, Maisuak direla uste dute, eta azpi-azpiko Inboluzioan murgildu ere egiten dira.

Inoiz ez ginateke liluramendu mistikoaren kontra mintzatuko, estasiaren kontra, eta egorik gabe, Arimak duen zoriontasunaren kontra.

Azken liberazioa lortzeko, “niak” desegin beharra daukagula adierazi baino ez dugu egin nahi.

Edozein anakoreta diziplinaturen Esentziak, “niari” ihes egiten ohituta, gorputz fisikoa hil eta gero balentria hori errepikatu egiten du, denbora batez estasia izaten du, eta gero Aladinoren Jainuaren antzera, botila barrura itzultzen da, egora, nira.

Orduan, ez dauka beste erremediorik, existentziaren oihal gainean bere bizitza errepikatzeko helburuaz, beste gorputz fisiko batera itzuli beharra dauka.

Himalayako haitzuloetan, Erdialdeko Asian, haragizko gorputza utzi zuten zenbait mistiko, orain, mundu honetako ohiko pertsonak dira, arruntak eta xumeak, beraien jarraitzaileek, oraindik ere, gurtu eta beneratzen dituzten arren.

Liberazioa lortzeko edozein saiakera, berebizikoa izan arren, egoa desegiteko beharra kontuan hartzen ez badu, porrotera kondenatuta dago.

Samael Aun Weor



Samael Aun Weor

Maisuaren Lan Idatziaren Kronologia

1. Puerta de entrada a la Inic. o Matrimonio Perfecto de Kinder __ 1950
2. La Revolución de Bel _____ 1950
3. Curso Zodiacal _____ 1951
4. Apuntes Secretos de un Gurú _____ 1952
5. El Libro de la Virgen del Carmen _____ 1952
6. Mensaje Supremo de Navidad 1.952 (Gnosis s. XX) _____ 1952
7. Las Siete Palabras. Ocultismo Elemental para principiantes ___ 1953
8. Rosa Ígnea _____ 1952/53
9. Segundo Mensaje de Navidad 1.953 (Gnosis s. XX) _____ 1953
10. Mensaje de Navidad de 1.954 (Gnosis s. XX) _____ 1954
11. Tratado de Alquimia Sexual _____ 1954
12. Voluntad Cristo _____ 1955
13. Mensaje para el 27 de octubre de 1.955 (Gnosis s. XX) _____ 1955
14. Mensaje Supremo de Navidad de 1.955 (Gnosis s. XX) _____ 1955
15. Mensaje de Navidad de 1.956 (Gnosis s. XX) _____ 1956
- 15A. Misterios Mayores _____ 1956
16. Mensaje de Navidad de 1.957 (Gnosis s. XX) _____ 1957
17. Nociones Fundamentales de Endocrinología y Criminología _____ ?
18. Tratado Esotérico de Teúrgia _____ 1958
19. Mensaje de Navidad para 1.958 (Gnosis s. XX) _____ 1958
20. Mensaje de Navidad 1.958-1.959 (Gnosis s. XX) _____ 1959

| | |
|---|------|
| 21. Logos, Mantram, Teúrgia | 1959 |
| 22. El Libro Amarillo | ? |
| 23. Supremo Mensaje de Navidad de 1.959-1.960 (Gnosis s. XX) ___ | 1960 |
| 24. Mensaje de Acuario | 1960 |
| 25. Supremo Mensaje de Navidad 1.960-1.961 (Gnosis s. XX) | 1961 |
| 26. El Matrimonio Perfecto | 1961 |
| 27. Supremo Mensaje de Navidad 1.961-1.962 (Gnosis s. XX) | 1962 |
| 28. Magia Crística Azteca | ? |
| 29. Los Misterios del Fuego | 1962 |
| 30. El Libro de los Muertos | ? |
| 31. Supremo Mensaje de Navidad 1.962-1.963 (Gnosis s. XX) | 1963 |
| 32. Supremo Mensaje de Navidad 1.963-1.964 (Gnosis s. XX) | 1964 |
| 33. Mensaje de Navidad 1.964-1.965 | 1965 |
| 34. Mensaje Supremo de Navidad 1.965-1.966 | 1966 |
| 35. Educación Fundamental | 1966 |
| 36. La Transformación Social de la Humanidad | ? |
| 37. La Plataforma del P.O.S.C.L.A. | ? |
| 38. El Cristo social | ? |
| 39. Mensaje de Navidad 1.966-1.967. El Collar del Buda | 1967 |
| 40. Tratado Esotérico de Astrología Hermética | ? |
| 41. Mensaje de Navidad 1.967-1.968. Los Cuerpos Solares | 1968 |
| 42. Mens. de Navidad 1.968-69. Curso Esotérico de Magia Rúnica .. | 1969 |
| 43. Tarot y Cábala | 1969 |
| 44. Mensaje de Navidad 1.969-1.970. Mi Regreso al Tíbet | 1970 |
| 45. Mensaje de Navidad 1.970-1.971. El Parsifal Develado | 1971 |
| 46. Mens. de Navidad 1.971-1.972. El Misterio del Áureo Florecer .. | 1972 |
| 47. Mensaje de Navidad 1.972-1.973. Las Tres Montañas | 1973 |
| 48. Sí, hay Infierno; sí, hay Diablo; sí, hay Karma | 1973 |

49. La Gran Rebelión ?
- 50.** Psikologia Iraultzailearen Tratatu 1974
51. Mensaje de Navidad 1.973-1.974 (?) 1974
52. Mens. de Navidad 1.974-75. La Doctrina Secreta de Anahuac ___ 1975
53. Pistis Sophia Develado 1977
54. Tratado de Medicina Oculta y Magia Práctica (M. Nav. 77-78)⁵ _ 1978

— * —

5 Primera edición en 1950

